

TXOMIN PEILLEN KARRIKABURU

JENDE EDERRAK LANEAN

(Who's Who?)



© Txomin Peillen Karrikaburu

© Utriusque Vasconiae

Lehen argitaraldia: Donostia, 2008ko otsaila

ISBN: 978-84-935757-5-5

Lege-gordailua:

Azaleko irudia: Raphaële de Gorestarzu

Barruko liburuaren irudia: Marie-Thérèse Olivier

Maketazioa: P.I.A.

UTRIUSQUE VASCONIAE - Ategorrieta Hiribidea, 3-3.

20013 Donostia. Tel.: 943-270433

Banatzailea: BITARTE - 31195 Berriozar (Nafarroa).

Tel.: 948-302239



Marie-Thérèse Olivier

## *Eskaintza*

Marie Thérèse Olivier ene emazte maite irudiegileari

## GALBIDEA

<i>Giltzaurrea</i> .....	9
Telematikazko sendagilea .....	11
Lege mediku aditua .....	15
Biologiari handia naiz .....	21
Jaun errejenta maisu .....	25
Unibertsitarioak .....	29
Santu baten bizitza .....	37
Ulalah jakintsua .....	41
Jesus Apezetxea eta artzaina .....	45
Haurren epaile zintzoa .....	51
Abokatu lotia .....	57
Hirizainaren lagun maiteena .....	61
Trafalgar hirizaina .....	63
Igerilariaren bihotzak .....	67
Futbolari errabiatua .....	73
Guzurtegi argitaletxea .....	79
Prsewalski, frantses idazle berria .....	85
Txang bideo .....	89
Musika barrokoa .....	93
Zizelkari ospetsua .....	97
Monsieur le Ministre .....	103

## GILTZAURREA

Who's who? Jende ospetsuen bilduma? Duela hamabost urte, jende ospetsu eder eta ohargarrien curriculumetan aurkitzen ez diren sekretuak argitzeko asmoa gogoan sartu zitzaidan. Han hor, agertu edo agortu diren aldizkarietan «*De viris et mulieris in illustribus*» baten egiteko lehen urratsa.

Sarritan, idazleak dio nire pertsonaiek bizirik dagoen norbaiten antza balute, uste, gabean litzatekela. Nik diot, alderantziz, edo, batzuetan, irakurlea, nire irudiak egiati, benetako iruditzen bazaizkizu ez da beti nire talentuen beharrez: zoritxarrez edo zorionez, ezagutu ditudan jende batzuk agertzen direlako; beste asko nire asmakizunak, ametsen eta errealitateen artekoak badira ere.

Sineskaitz ez dena ere gerta bailiteke, sinets gogorenak gertatuak dira. Nola nahi, ez duzue aurkituko psikologiazko edo moralezko itxurarik non ez duzuen ikusiko, sarritan, nola bizi diren guri irakasbide ematen dabiltzanak: ez dutela predikatzen dutena gauzatzen, ez eta gauzatu nahi. Mozorroa kendu eta tximinoa biluzik.

Hiru izan ezik, eta ustez eta hobekienik ezagutzen dudan norbait, nire burua, bi ipuinetan agertzen da. Notinak ez dira euskaldunak, ez eta, beti, euskal herritarrak izango nire biziaren erdia baino gehiago gure herritik kanpo eraman behar izan dudalako. Erbesteetan ikusi dut nola zakurrak ortutsik dabiltzan, baita gehienetan haundikien bizitza txikikeriaz betea den, euren ospea hutsean, hondarrean, harean eraikia. Hala ere, ipuin horik, kilimon batzuen kontakizunarekin, irria sortzeko ustez idatzi ditut

Nor da nor? Inor ez eta asmoz edo ekintzez denak hor.

## TELEMATIKAZKO SENDAGILEA

*Arrazoi lozalea*

*Mamu sortzailea* (F. Goya)

Ez dakit sendagileak urritu direlako, gutxiegi irabazten dutelako ala, mihi gaiztoek diotenez, tresneria berriaren saltzeko, baina gure herrian sendagile aditu baten kontsulta berezia izatekotan, telematikaz deitu behar duzu.

Hain zuzen edo hain oker, aspaldixko horrelako ikerketa baten beharra sentitu nuen. Ez naiz aurre-rapenen eta beste progresoen etsai horietarik: gizonek asmatu tresna guztiez baliatzea gogoko zait. Berrikuntzen ukatzea aberekeriara itzultzea, zuhaitzetara bizitzaren igotzea, irudi zait.

Oraintxe, nire tramankuluaren aurrean nago: bi-deofonoa. Telefonoaren mahaitxoan zenbaki baten markatzeko teklak ukitu ditut. Argi erakustoki den pantaila argitzen zait. Argi berde batek dio zenbakia egina dela, baina bi gorriek beste norbaitekin hizketan ari dela medikua. Eta azkenean bi argi gorriek argi



berde bati lekua uzten: espezialista haundiaren burua eta enborra erakusten ditu Hark berdin omen nakusa. Telefono adarra altxatzen dut. Bi minuturen hitzaldia hautatu dut, nire kasua bakuna dela uste baitut:

—Egun on jauna

—Bai ta zuri ere, zer nahi duzu jaun eria?

—Badakit zer dudan baina eztaikit zer egin?

—Baldin badakizu zer duzun eztuzu nire beharrik.

—Jauna ez dut zure gaitasuna zalantzan jartzen,

ez.

—Jakina ez didazu ofizioa irakatsiko. Espezialista haundia naiz. Arnasbideen eta biriken sendatzen onenatarikoa.. Zer adin duzu?

—Berrogeita zazpi

—Zenbat kilo?

—Berrogei, baina.....

—“Ez da bainarik, baratzetan baizik”. Lehenbailehen, ez duzu nahikoa pisu, gizendu, loditu beharko zara. Entzun errezeta:

“goizero baraurik Loditina, lau pastilla

—jarraian, Harroskorbutina, bi bonbillatxo

—egunean, berritan, Heavytina, indizioa

—apairu bakoitzean, Stratomizina, lau arrautzxo

—Zein dituzu izena, helbidea, errezeta hori postaz igor diezaiazudan.

*Pedro de Arraultzegaitz*  
*Calle de los Textos Arcáicos*  
*Errenteria*

—Ederki zer duzu gehiago.

—Arnasa nekez hartzen dut. Hatsalbotzen naiz.

—Egin, egunero, hamar kilometro oinez eta beste errezeta hau har ezazu!

“Kafefilina bi pastilla, goizean, eguerdian, baita arratsean ere. Bronkofilina, bi bonbillatxo, ohera joan gabe

—Honekin zure bi minutuak igaro zaizkizu. Zure bankuko kontuan zor didazuna, zuzenki jasoko dut. Agur.

Teleargia hiltzen da, itzaltzen zait. Ez dit sendagileak galdetu zergatik berrogei kilo baizik ez ditudan eta nire goiko parte baizik ez du ikusi. Oinez ibiltzeko erremedioa ere ez zidan emango, baldin osorik ikusi banindu...ankagabeko gizona naiz-eta.

## LEGE MEDIKU ADITUA

Lege mediku sendagilea naiz eta ez dut ezer sendatzen. Nire jendeak ez dira eriak, hilak baizik. Autopsia egitean urratu, hustu, zatitu behar ditut. Zernahi zerra, bisturi eta guraize badut. Lan horrek ordea nazkatzen nau: ez andrea naizelako, ez usainengatik, mozorroa ipintzen dudalako, ez jendeak ditudalako gogoan. Ni, apur bat harakina bezala, naiz. Ez ditut jendeak, jaten, edaten, larrua jotzen, hausnartzen, asmazten: objektu hutsak dira niretzat.

Haatik, sarritan, nire hilez gogoeta batzuk ditut. Gogoetak heriotzari buruz: erailketetan hilak, askotan, andreak dira eta hiltzaileak gizonak. Gizonei badiet horrelako aiherrak gaiztoa. Ez nuke nahi ezkondu, ez eta lagun batekin bizi. Aitortu behar dut, ordea, lanbide horretan ez naizela aberasten. Ez dakit aurrezten. Diru asko behar nuke eta sarritan kontua hutsik gertatzen zait.

Gizonen aldeko ezinikusia ez doa, halere, gure generoagana joateko gogoia piztera. Ezinikusi horrek baluke muga: maiz, pentsatu dut gizon aberats bat nire saretan atzeman baneza, lana utz nezakeela. Denbora

berean oso askatasunzalea naiz, ez lanik, bai dirua, hau litzateke nire xedea, baina gizon baten jasatea?!!

Lagunek esaten didate daukadan edertasun paregabearekin, arrain haundien harrapatzeko amu ederra naizela. Beste zenbaitek, berdin, kontratuz ondasunak elkarrekin ipiniz, gero dibortzia nindekeela eta erdia bil.

Azkenean, Egipton, Xarm El Xeikheko hondartzan oporrez nengoela arraina ezagutu nuen. Nik, hogeita hamar urte ditut eta nire gizon horrek hirurogeita hamar. Jakina, hasieran bazkaria, gero dantzaldia, gero bere itsasontzian ibilaldia, baina eltzearen berotzeko laztan txikiak baizik ez nizkion utzi, eta azken egunean laztan haundia, kalitatezkoa.

Erotu nuen gizona. Itsutu nuen. Madrilera sartu ginen, eta gure ondasunak, bat eginda, elkartzen genituelako kontratua izenpetu.

Handik hilabete ezkondu behar genuen. Egun batez kontatu nien lagunei eta nire ohaide berriari mendira nindoala atsedean apur baten hartzera. Beribila hartu eta bi kilometro egin nituen, oinez jarraitu senargaiaren etxeraino itzultzeko.

Sekulako ezustekoa egin nahi nion. Haren etxeko giltza baneukan. Sartu nintzen. Oso pozik hartu ninduen. Liluratua. Laster ohe jokoetan nekatu nuen. Lokartu zen. Orduan, nirekin ekarri orratz luzea garondotik sartu nion. Ondo nekien, ofizioz, non zegoen *Flourensen bizi korapiloa* eta zulatu nionean, ito zen eta bihotza betirako gelditu zitzaion. Dena, ondo joan zen. Gaua zen. Inork ez ninduen han sartzen

ikusiko. Laster, mendian egongo nintzen. Ziztak ez zion odolik batere atera. Beste forense batek ere ez zuen ezer ikusiko. Bihotza gelditurik hil zela erabakiko zuen eta nik nire zaharraren fortuna osoa bilduko.

Mendira joan nintzen eta han lasaiki lo egin. Niretzat erailketa eta autopsia lan berdina zela iruditu zitzaidan, nahigaberik, garbairik ez. Bat batean, igandean deitu ninduten, bihotzeko batekin hilik aurkitu zutela, senargaia. Susmorik ez pizteko, hartu nituen aurpegiaren zurbiltzeko drogak eta negar erraz egitekoak ere. Agertu ziren bai senide batzuk ehorzketara. Nire komedia ederki eman nuen. Ez nintzen notarioarengana agertzeko ideian. Ez nuen presarik.

Senideak, baitezpada, joan ziren ikustera zer atera zezaketen gizon aberats harengandik, eta hala lana erraztu zidaten. Ni, ezkondu gabeko maitale haundia, aberastasun haien jabe egin nintzen. Ez nuen uste, hala ere, ondasun horik aski izanen zirenik autopsia lanaren uzteko: barku bat, bi etxe, diru mordoa. Aurrezle ez bainintzen, kalkulatzaila bai. Bi etxeak eta barkuak saldu, hamar urteez lanik gabe bizi ninteke, handik landa estuago akzioen errentaz. Beste gizon bat aurkitu behar nuen.

Bigarren senargaia aberats okitua zen, ezinago. Hau zen arrain haundiena. Sareak erraz hedatu nituen; bere burua neska eder baten enjogitzeko gai zela erakutsi nahi zuen. Bestea baino gazteagoa zen. Bilboko industria gizon export-inport salerosketa egilea. Alarguna zen, seme alabarik gabe. Honekin, erraza izan zen kontratuaren egitea, fortunatxo bikainarekin baintorren eta bainekarren.

Hurrengo horrekin, burua berotuegi zitzaidan, ordea. Eguna zen. Jendeek bigarren senargaiaren etxean sartzen ikusi ninduketen. Berdin lokartu zenean orratza garondotik sartu nion; jarraian, etxearen ikertzen hasi nintzen, pitxiak, diruak eta izengabeko bonoak hartu nizkion eta maleta bat bete.

Gero, haren gorpua hartu, narrasta eroan eta nire *break*ean aski nekez sartu nuen. Etxean baneukan tailerra antolatua, guraize, eskalpel, bisturi, zerra elektrikoarekin. Mahaiaren gainean jarri nuen. Goiko argia piztu. Sabela bisturiz urratu. Hesteak bidoi batean ipini ibaira botatzeko. Erraiak zatikatu, nire zakur gosetiei emateko. Gorputz hustu hura, jarraian, zatitu, lepoa moztu, enborra bi zati eman, lohadar bakoitza, berdin zatibitu.

Zatikinekin mendira joan nintzen. Nire bigarren etxe baztertu hartan lasai amaituko nuen. Estufan eta tximenean, baita kanpoan ere, haragiak erre nituen, eta Indietan ikusi bezala, erregailuz ongi bustirik, ilaundu arte.

Kezka txiki bakarra, urrutiko baserritar batek eman zidan, esanaz ez ote nuen usnatu haragi erre usaina? Nik erantzun nion ardi larru batzuk erosi nituela eta ahaztu. Ustelegiz erretzen ibili nintzela. Honekin, astakeria handia egin nuen, ezen gizona desagerturik, ez nintzen berehalakoan haren ondusunaz jabetuko eta agian, sekulan ez, nahiz jadanik maletan eramanez ez ziren itsusiak.

Horrelako bidean, ez nuen atzera egiterik, hirugarrena topatu behar nuen. Ez daukat ezkon-agentzietan

inolako fidantzarik, hala zenbait gizajo hits eta erdi-  
aberats ikusi ondoren, gazte bat atzeman nuen eta  
nire saretan sartu. Hau, aita aberats baten ondasunen  
errentaz lasai bizi zen.

Gaztea zen eta ohean oso gogoko nuen eta betiko  
kontratua sinatu ondoren, harekin ezkondu nintzen.  
Hasieran, oso ongi nengoen, baina gero galdu askata-  
sunaren tirriak berotu ninduen. Bizi guztia horrekin?  
Erraza izan zen gizon zahar batekin, bihotzekoarena  
egitea, sarritan, adin horretan ahulezia hori gertatzen  
baita, baina gizon hau oso sanoa, oso gaztea zen eta  
ezin nuen orratza erabili. Bazuen ahulunea, ordea,  
medikuek osatzen zioten ezin lokartzea eta barbi-  
turikoak hartzen zituen.

Beti erreserban barbiturikoak baneuzkan eta batik  
bat tutu hutsak, zianuro apur bat ere edukitzen nuen,  
*porsiakaso*. Gau hartan nire gisako janaria prestatu  
nion. Banekien ez zela bat batean gertatuko eta ohera  
joatea eskaini nion. Barbiturikoak hartu zituen eta  
nik alboan utzi nizkion tubo hutsak, salagarri.

.....

Une baten buruan haren pozoitze seinaleak itxaro  
egiten jarduten nuelarik, niri zitzaidan sekulako sabel  
mina etorri. Platerak trukatu nituzke ala hark? Ongi  
balio zuen nire forense jakituria ez bainintzen gai izan  
horiekin guztiekin aberasteko. Nik uste baino lehen  
...nire laneko arazoak... laster amaituko ...dira.

## BIOLOGILARI HAUNDIA NAIZ-ETA

„Ikasle maiteak... luzapenik gabe hona asmatu dudan tramankulu berria. Lurreko aldetik, zartagin baten itxura dauka, baina mahanga luzearekin, metal aurkitzekoan den bezala. Honekin, ordea, katodo lanparen alderantzizkoa erdietsi dut: hark baldin elektrizitatearen elektronak, argiaren foton bihurtzen baiditu, nik alderantzizko bidea darabilt, fotoiak elektroi bilakatuz.

„Jakina, teknikari batzuek foto-argitasunaren neurtzeko tresnak egin dituzte... nirea, ordea, fotofosforogintza delakoaren fotonak ezagutzea da. Ikasberri zarete eta zuen begietan norat goazen eztakizuela ageri da.

—Zuk adibidez, neska, ba al dakizu fosforoa non aurkitzen den?

—Supiztekoetan, pospeloetan, jauna

—Ez. Ametsetan zabilta. Hemen biologia irakaspena dugu. Eta zuk Pettan ba al dakizu zerbait, izaduan fosfororik non dagoen?

—Bai, hilerrietan gauaz ikusten diren iratxo argiak, gorpuen fosforoa dela diote, irakasle jauna.



—Egia da eta nire asmapenaren balorea ulertu hurbil duzu.

„Ikasle maiteok, egin dudan tramankuluak lurrazpian, lurpean gorderik dauden gorputz hezur, hezur eta haginena izatea salatzen du: dakizuen bezala, hezurak baitu fosforoa halaxe galtzen.

„Nire tramankuluarekin ez da hilerrietara joan beharrik, gauaz ibili beharrik fosforo gasaren ikusteko.

—Jauna, eta zure katxarro horrek nola gaztigitzen dizu fosforoa non dagoen, argi bat piztuz, *tilt* soinu eginaz?

—Biak.

“Sinesgaitz zaizue. Isilik zaudete. Proba batzuen zain zaudete? Hona mahai honen gainean, halaxe... parkeko intxaurrondoaren itzalean atzeman dudana hezurra.

„Hezur honi begira. Izter hezurra da. Honen dena erranik dela uste baduzue, ez dakizue Cuvier haundiak asmatu iker bidearen berri. Hezur hau mintzaraziko dut. Hitz eginen digu.

„Lehenik eta lehenbizikoz itsu batek ere esan lezake jabea arra denez, gizasemea denez ala emea; eskua gainetik igarotzean, atzean hezur adarrak nabaritzen baitira gizonezkoa da... Neska, andere hots gizalaba baten hezurra borobilagoa, leunagoa litzateke.

—Eta nola bereizten duzu, zelan jakiten jendea ala animalia den?

—Hau geroago ikusiko dugu ez didazula logika hori hautsi.

„Bigarrenik hezur adar, apofisi horik giharren lotuneak dira, beraz horien arabera, horik ikusi-eta, jendea argala edo gihartsua den asma nezake. Bi ikuspegi eta osagai horik sakonduz eta izter hezuraren luzera kontuetan harturik, gizaseme hau argala zela aitor genezake.

„Hirugarrenik hezurren bi buruen muga marra hori ikusten duzue. Hori da hazi kurruska edo kartilagoa; horrek gure jendeak ez zuela bere hezurtzaren gogortzea amaitu aitortzen digu.

—Beraz zer?

—Ez dakit, Jauna.

Mutikoa zen, nolabait hamabi-hamalau urteetako... kurruskaren eta hezurren luzearen arabera.

„Laugarrenik hezurra makurtua, okertua bezala baita, giharrez bezain beste hezurrez oso argala zela aitortu behar, haren adina kontuetan harturik ere, erabat argala, hebaina zen.

Hitzaldi luze hau bukatzean da sartu Unibersitateko lehendakaria, besoak airean, ez kitxuaz, baina kexuan gaztelaniaz baizik berehala jakin dugu:

—Nork profanatu eta bere zulotik atera du duela hogeit hamar urte hil eta hor lurperatu genuen... gure zakur zahar maitearen hezurrik?!

## JAUN ERREJENTA, MAISU

Leskarreko frantses maisu irakasle eskola egin nuenean, “esprit fort”, buru temati eta kritikari bezala sailkatu ninduten. Horregatik eta, nire lehen postua Zuberoa zokoan den Santa Graziko erbestea eman zidaten. Lagunek esan zidaten hara joatea desterrua zela, baina nik ez neukan gogorik herri aberats eta burges horietara joateko, dirudun jende horiek eskolako gauzen goaitatzen denbora ematen dutelako. Hemen bederen errespetatzen naute “jaun errejenta, hau”, “jaun errejenta, hura”

Hogeigarren mende hasiera honetan, ostera, badakit hobeki egin nezakeela gaztelania irakats baniezaie, ezen erdiak baino gehiago “La Douce France” utzirik, Rio de la Platara joanen direlako.

Hemen, Santa Graziko gaineko eskolan, *Kallea* deritzon etxe multzoaren erdian, Ganaggerre mendiari, Arpide eta Uhaitxarre arrolletara begira, Nafarroako mugar, eskola txikia dut.

Neguan elur ederrik egiten du, baina, orduan, Salaberri zaharrak bere lerarekin umeei elurra baztertzen die eta Xentako haurrak ere etortzen zaizkit.

*Eskoletxea* txikia izan arren, halatan ere berrogeita bost bat haur 6 tarik 14 eraino. Denez ezin arduratu: zaharrenek, frantsesa hobeki dakitenek besteei irakurtzen irakasten diete.

Goiz honetan, haur batzuk idazten eta besteak aritmetikako ariketan zeudela, gizon bat, atea jo-eta nire erantzuna entzun gabe, gelan sartu zait. Hone-lako jendeek ez dute izen txartelik behar aurkezteko: itxuratik, jantzitik banekien “inspekturra” ikuskatzaile zela

Haurrak zutiarazi nituen, eta bera gelaren atzeko aldean jarri ondoren haurrak eserarazi. Eman nion nire gida liburua eguneko egitekoarekin. Lehen ariketa zen hiztegia. Gauzak erakutsi eta izena eman behar zuten. Liburu bat erakutsi nien, aho batez “le livre” esan zuten.

Nik beste izenik bazuenez eta bizpalauek “el libro” eta beste izenik “libürria”. Haserre gorritan jarri zen ikuskatzailea. Deitu ninduen eta ahopeka galdetu zer zen? Ez ote zen frantses eskola bat. Frantzian frantsesa irakatsi behar zela eta abar. Banekien hark bere galo-romano mintzairaz kanpo beste hizkuntzarik ez zuela ezagutzen. Hark, Frantzia bat eta ezin zatitua zela. Frantzian bizitzeko aski zela frantsesa. Gaztelania, bearnesa, euskara eta beste patois guztiak baztertu behar zirela.

Nik galdetu nion zein zen pertsona argiena hizkuntza bakarra zekiana edota hemengo zahar askoren gisa, bizpalau? Ez zidan erantzun eta uste dut nire ironia ez zuela ulertu. Haurrek bai, ezpainetan irriinoa

zeukaten. Jarraian galdetu zien haurrei zer zen errepublika eta aho batez erantzun zioten Maisuen, Errejenten Eliza. Eliza hitz horrek berriz ikuskatzaile laikoa gorriarazi zuen.

Hitz katramilatsu eta jakintsuekin errepublika zer zen azaldu zien eta jarraian galdetu zer zen, “la patrie”? Ihardetsi zioten *patriari*, bere odola gerratetan eman behar zitzaion zerbitzua zela, eta sosak zergetan ordaindu behar zitzaiola, tribunal, gendarmeak eta presondegia antolatu zitzaizkien. Haserre gorritu zen. Frantzia Estatu legezalea zela eta frantses guztien aita bezala guztiak zaintzen. Galdetu zien umeei ea, mendietan bizitzez astotuak ziren?

Ez zutela ezer ulertu eta eskatu zidan liburuetan errepublikaz idatzia zena ongi azaldu diezaien.

Gure bigarren ariketa zer izango zen galdetu zidan. Nik erantzun itxaro egin zezala, ondoko gelara tresneriaren bila joango nintzela, Ehizaz zela irakasgaia. Ekarri nituen ehiza zorroa, kartutxo gerrikoa, arma eta paretetan lotu ehiza batzuen irudiak. Hasi ginen. Ehiza-zorroa erakutsiz, hau zer da? Aho batez “la gibecière”. Zer egiten da horrekin? Ehiza txiki hilak biltzen. Zein dira ehiza txikiak? Usoak, galepe-rrak, oilagorrak, birigarroak.

Eta besteekin zer egiten da ? Lau patetarik haga batean loturik eramaten. Zein dira haundiak? Basurdea, orkatza, sarrinoa.

Jarraian, ehiza zorroa utzirik kartutxo gerrikoa erakutsi nien zer da hau “la cartouchière” eta zertarako zen. Aurretik kartutxoak prestik izateko. Non

ipintzen. Aho batez gerrikoan, eta batek edo sorbal-  
datik behera. Nik nahi bezala zoan afera. Arma hartu  
nuen. Zer da hau “le fusil“ eta zenbat parte dituen  
kulata, kanoiak, zerratzeko giltzak eta tiratzeko oilar  
edo katilua. Erabili ondoren, zer egin behar zitzaion?  
Erabili ondoren kanpoan ireki, trapu batekin garbitu  
eta gantzutu, txerri koipearekin eta bi kanoiak tapatu.

Nola ibili behar zen. Oinez ibiltzean kanoiak  
zabalik. Ederki esan nien. Eta, irudi taula bat eraku-  
tsiz, nola ezagutuko duzue ehiza? Hau zer da? Eperra.  
Hau zer? Oilagorra. Hau zer? Basurdea. Hau zer?  
Orkatza. Aho batez frantsesez ihardetsi zidaten.

Non dago hemen ehiza? Eta umeek atzera ikus-  
katzaileari begiratu zioten. Zer egiten da ikustean?  
Arma kargatzen. Giltzak zerratzen, miratzen eta tira-  
tzen “arma tira punp”. Orduan, arma hartu nuen,  
kargatu eta ikuskatzaileari buruz zuzendu. Miratu  
ondoren galdetu. Hau dea ehiza? Baietz bai, umeek  
erantzun.

Bat-batean bere gauzen erdiak bilduz zurbil-zur-  
bila zutitu zen inspektur jauna eta laster batean kan-  
poan zegoen. Ez nuen sekulan haren berririk izan ez  
eta beste ikuskatzaile baten bisitarik. Zuberoako Basa-  
bürü guztian jakin zen “Duleau domintxaintar erre-  
jentak arma eskuan, bere eskolatik inspekturra kanpo-  
ra eman zuela.”

## UNIBERTSITARIOAK

Unibertsitatean, *unidibertsitate* haundia dago. Nik horrela diozuet, oinak narraska azterketara noalako. Again, irakasleekin, mutil lagunekin baino errazagoa izanen zait. Ahozko azterketa horretan bi irakasle ditun. Ezin aukera. Alfabetoan L.raino batrekin, L.etik aurrera beste horrekin. Zer komedia eman behar dunan! Dagoeneko, norbait zegoen barruan. Korridoreko lurrean esertzen haiz, frantses fakultatean ohitura berri hau ikasi dun. Egiteak, lasaitzen hau.

—No, Maider ahozko azterketa hori, hik ere, jasan behar dun?

—Bai, ahozkoa mutil lagunarekin nahiago niken. Horregatik, asper-asper nagon. Irakasle zahar horien zimurren ikustera behar dinagu. Izutzen nun.

—Maider, ez dun arazorik izango: oso hiztuna haiz.

—Bai, lagunartean. Literaturan beste kontu.

—Ez kezkatu erdietsiko dun. Ez egin horrelako muturra. Muzin egiteak atsegin eman lioken hire aztertzaileri.

—Arantxa, niri gauzak beti gaizki ateratzen zaizkit.

—Ez neska, badirudi ebakuntza batera hoala. Izan ere bizirik aterako haiz hemendik.

—Jakina, baina ikasketen egiteko gogoia irakasle ziztrin horiek ebakiko didate.

—Ni ere ohean hobeki nengokenan.

—Zer? Bart, besta parranda eginik, Maider?

—Bai eta ez.

—Zer?

—Beste zer bait. Ez dinat literatura hori biziki landu.

—Nik ere ez. Nahiz lagunek besterik dioten, literaturaz hitz egitea bla bla bla hutsa dela uste dinat.

—Ez zekinat nola iraganen dugun.

—Ez adila arrangura. Badakin zoria alde dugula. Txomin Barrikaberekin igaroko gaitun. Gertatu bagina Jean Leon Mopezekin kezkatzeko arrazoi bagenituzke. Hura, neskak negarrez ikusi arte, ez dun gelditzen.

—Aitor gizajoak, ez diken gure zoria. Abizenaren lehen letrarekin beste taldean dun. Mopez irakasle zital horrekin nekez igaroko dun.

—Bai, Jean Leon horrek bazekin bigarren urtera igotzeko aztergai hau beharrezkoa dugula eta botere horrek harrokeria bat ematen zion. Horregatik, maltzur horrek hogeiko notetan zerotik hamarrera baizik ez din ematen. Garai batean ere, ikasleak lehen urtean metatzeko, omen, zeroaren azpitik ere.

—Eta zer uste dun Txominekin? Entzun dinat diola: nolanihi, biziak eta lanak beren lekuan ezarriko dutela, azterketan faltsuki igaro dena.

—Badakin, Arantxa Txominekin errazago izango dela. Ez din beste oker haren gisa, nota txarrik jarriko.



Utzi dun Maider izutua hire aurretik joaten? Neska hori beti zainetan eta urduri zegonan. Aterako denean, berak edo aurretik dagoen, besteak esango dine Txomin irakaslea egun onean den ala ez. Horrela, jakinen dun harekin zer taktika erabili. Nolanahi, bestea bezala, ez dun neska sedutzioari sentibera eta hik ez dun, galeperrak bezala, zahar baten enjogitzeko edertasunik.

Azaletik programa irakurtzen dun, baina liburuan eta oharretan ezin sobera begirik sar. Kemena ez horretan galdu! Maiz, klaseari sobera piper egin dion eta azterketarako gerturatze denbora gehiena gramatika deabru horrekin joan zain.

Berriz, korridoreko lurrean jarri haiz. Etzateko gogoia dun, baina lekurik ez. Lasai adi. Irakurtzea uzten dun, berantegi dun. Korridoretan erretzea ere debekatua dun eta beherean kanpoan erretzea, eguraldi busti fresko horrekin, ezin.

Pentsaketa goxoagoa, zirikagarriagoak, gogora heldu zaizkin. Ostegun gauean, Baiona Txipiko ikasleen ohiko gau pasetan, ezagutu ditun bi mutil. Asteburuan, haiekin Zugarramurdiko diskotekara behar dun. Zalantzan hago. Ez dakin oraindik, sobera, hemendik goiti, zeinekin ibiliko haizen. Orain arte, eduki dunan lagunaz sobera asea haiz: beti moral egiten. Jarraian, beste bi horien artean hautatu behar dun: beribil ederreko, begi sobera goibel hori ala motodun pozkorra, poza begietarik eta ezpainerarik dariona?

Nolanahi, orain arteko lagunarekin, sobera. Depresibo horrek bere buruaz beste gogoan dabilela,

bere leizera joan hinteke. Bego. Ez haiz erizaina. Atea irekitzen dun. Mainer irribarrea ezpainetan irteten.

—Arantxa, nire nota ikusi dinat. Ederra. Orain hire aldi. Prestakuntza garaian asko idatz ezan. Galdekatu baino lehen hura irakurriko din. Handik landa, bera mintzatuz, klase bat emanen din. Utz ezan hitzegitera. Azkenean bere buruari din nota emanen.

Badakin nola jokatu. Irakaslea eleberri idazlea dun eta ahaleginaz, kontakizunaz berba egin behar dun, narratibara ekarri. Eleberri idazlea bai, nahiz lau sari eduki arren ez den sobera ospetsua. Gutarik inork ez din irakurri. Bere obraz zerbait errateko bahu hobe zukenan. Sar adi laster.

Sartu haiz. Aztergai bat atera. Gelaren zoko batera joan paperean hire erantzunak emateko. Mainerren aurrekoa ez dun oraindik igaro, irakaslea mintzo zaio. Astia izango dun idazteko.

Eleberri baten zatia dun. Ez dakin sobera zer den. Zer arraio da? Zein da, andreez ironia goxoz jarduten duena? Andre bat. Urretabizkaia, agian, ez baitakar testu honek egilearen izenik. Bila ezan zertan litezkeen ironia hutsezko zirtoak. Ez dun erraza. Ez haiz hi eleberri idazlea ez eta sobera irakurlea. Zer da ipuina ala eleberria? Idazki honi, irakatsi bezala, hire irudizko akatsak atera behar dizkion.

Beste ikasle bat deitu din eta hark gai bat hartu din. Orain hire aldi. Ordu erdi joan zain. Mainerrek aholkatu bezala, galdeketa ez zaiok gustatzen, “ahozko idatzia” idatzirik aurkeztu behar dion .

Esertzeko esan din eta hura hire paperaren irakurtzen hasi. Zimurrak bekokian, ezpain okertuen keinuak. Hasperenak. Zerbait badin gustuko ez duena.

—Neska, zuk ikusi dituzun akatsak kalitateak dituzu. Non ikusi duzu ironia goxorik, testu honetan?

.....

—Zer diozu besterik.

(Kasu! *Tilt*. Gaizki jokatu dun, gehiegi idatzi. Nola zuzenduko dun okerbide hori? Gainera irakasleak berak idatzi idazki baten zatia balitz, hainbat gaizto!)

—Ezer ez.

—Ez nau harritzen. Testu hau antifeminista zela ez zara konturatu eta zuk diozu andre batek idatzia dela. Arantxa batek idatzia, zu zeu Arantxa zarelako. Nik eman dizudana Patxiku batena da. Feminista guztiek gaitzetsia izan dena. Gainera, egiturari egiten diozun kritikak darakutsa eleberria zer den ez dakizula.

Saiatzen haiz kontatzen irakasleak eleberriaren hori azaldu zuenean gaixorik egon hintzela eta lagunen oharrak ulertzeko txarregi zirela. Hark esan din gauzak oso argi eta garbi azaldu zituela eta lagunen oharrak ezin zitezkeela txarrak izan: gainera, polikopiazkoa banatu zuela.

(Arantxa isil adi, beste arantza bat hire larruan sartu baino lehen).

Jarraian, ordu erdiz eta bere ahots kexuarekin beste ikasleari, prestatzeko lana oztopatuz, irakasleak

kontatu din zer baldintzetan berak idatzi dituen bere eleberriak: hizkera motaren aukera zaila, erregistroa, deskribatzeak, lekua eta denbora, bakarrizketa eta elkarrizketa, korapiloa, kapituluak bai ala ez, puntuazioa bai ala ez, eta ikasi ez hituen beste hitz batzuk lerrokatuz.

Ondoren luzaro eta zehatzki entzun behar dun, ez omen dunala ulertu, eztakinala nola eleberri bat idatz zitekeen.

Azkenean, isildu denean badirudi irakasleak zuela ahozkoa igaro. Erdi pozik zegonan. Uste huen irabazi huela, adi-adi egonaz eta nota batzuk idatziz. Zoritarrez, saltsaren ozpintzeko hire idatzizko kopia atera din, ziolarik literatura ez dela lagunarteko bla bla bla hutsa eta gaiari buruz zernahiren idaztea.

Berriz dio: ageri dela bizitzaz ikuspegi lausoa daukanala eta kulturaz, areago. Baina, zer nahi du zahar horrek, hain gazte garelarik haien eskarmentuak eduki izatea? Honek bezala bi gerrate ezagutu izatea? Ez al dute ulertzen irakurtzeak ez duela bizitzea ordezkatzeko eta guk ahal bezala irakurketatik daukagula jakituria. Egia da herri hits honetan nekez izan deza-kegula eurek kanpoan bildu duten kultura orokorra.

Jarraian, dio, ageri omen dela Donostiako tabernetan ikasi dunala euskainola, eta Iparraldeko kutsuak ez hauela hobetu, *hatxeman* aditza edozertarako hamar aldiz erabiltzen dunalako, baita konparati-boetan *-egi* ez dakinala erabiltzen eta hire kopia “*sobera*” hitzaz betea dela. *Horik* eta *horiek* nahasten ditunala (Hau dilubioa! Horik eta beste entzun behar ditun). Ez dunala bigarren urtera joatea merezi.

Hau omen dun irakasle goxoena! Zer izango zen beste haserrekor harekin igaro bahu! Ez dun ulertzen: gramatikan irakasleak esan din aski ongi atera hantzela; beharbada horrela salbatuko haiz. Txomin zahar horrek baleki gramatikan ongi atera haizela, erran lezakeen, gogoz ikasia ez dakinala aplikatzen. Ala joko bat izan da harentzat. Unibertsitateko irakasle horien buruan beti badun sadikoa lo.

Hortik atera haiz begiak bustirik, baina ez negar malkoekin. Haserrez edo etsipenez ez dun sakontzen. Beste urte bat egin beharko zain. Gainera, hire lehen ikasketak gaztelaniaz egin baititun frantsesarekin arazoak izango ditun. Kaka zaharra! Bihoa pikoetara euskal filologia madarikatu hau!

Maider, kanpoan zegonan. Oi, haren aurretik igarero bahintz hobeki irtengo hintzen! Hor alboan zegonan Aitor eta hark esan digu, nola Jean-Léon isilik egon zaion mintzatzera utziz, haren prestakuntza papera irakurri gabe eta noizean behin, isiltzen zenean bere begi hotz eta aurpegi zurbilarekin. *Zer gehiago?* galdetzen ziola.

Haren galdera bakarra izan zen: “Zure gurasoek zer egiten dute? Laborariak dira. Itzul zaitetz lur lanera zure lekua ez da unibertsitatean”.

Hirurok zigarreta pizturik kanpoko ostatura joan gara, erretzen hasi eta ahoaren gozatzeko hirurok garagardo bat, eta beste bat eta ez dakit zenbat edan dugun.

## SANTU BATEN BIZITZA

Gizarte laguntzaren babespeko neska galduekin, neska inozoekin hasi hintzen lanean. Neskatxa gazte elizakoien edo alderantziz guraso gabekoen artean, igarotzen hituen, egun osoak: gonazaletu hintzen. Bai, haien artean, lagunartean eta biekin ohe artean. Azkenik, mihi gaizto batzuek bi neskatxa izorratu hituela eta bi haur egin salatu hinduten Eta zergatik zoroxka zirelako ez zuten orgasmoa ezagutu behar? Eta nik ere, ez?

Akerra hintzela aldarrikatu zuten: orduan Baionako buruzagiak, hire bi Aingeruak eta aingeruku-meak utzirik, itsasaldetik Urdaitxeko jendeen artera izendatu hinduen

Erbestea ez zen hain haundia. Hirian zozo gutxi baldin bada, hemen biligarro onik eskuratu duk. Ez neskarik areago, ezen ezkondu batzuen artean eta dibortziatuen artean andreek alu hazka haundiagoa izan dezaketelako eta haurrak utz adardunen besoen-tzat. Andreen tratuaz kanpo, herrixka honetan baduk beste atsegirik. Alkate izena ez baduk ere, daukaan eskola apurra herriko auzapez txapeldunarena baino baliagarriago zaik: udaletxeko idazkaria haiz.

Idazkari haizenez geroz, frantsesez ez dakitenengandik bezuza eta ikustate ederrik biltzen duk: gizarte seguru, etxe seguru, zerga batzuk, subentzio eskaerak betetzen laguntzen dituk. Diru laguntza behar dutela eta alegia hik erdiesten diek. Eta ahotik oso minbera haizelako ederki hazten haute. Daukaan ohorezko arroparekin, nork dudatan ezar lezake hik idatzia?

Ez haiz nekazaria eta hala eta guztiz ere, laborari mutual erakunde baten buru haiz; ez duk ostaturik, ez hotelik eta turismoaren idazkari. Ohoreak, bazkariak eta diruak halaxe biltzen dituk, ez hire benetako ofiziotik. Buruzagiei ezan diek lekuz aldatzen bahaute, ofizioa eta arropa utziko duala.

Gustatzen ez zaian izenordea Jojo ipini diate. Nahiz hire erreinuak ez lukeen lurtean izan behar, lantegi baten jasoarazten saiatu hintzen; horretarako dirua bildu. Industria hori ez dute beste nagusiek utzi jartzera beldurrez eta beren langileen sariak gehitu behar zituzten. Errenditu hintzen. Handik landa kontserbategi batean hire maite minarekin lan egin huen. Bien kontserbatzeko egokia izan zen. Kontabilitatea ohean ere egiten hion. Hortik ere kanpoa eman

Azken huts egitea elurtokikoa izan duk. Hire egitasmo haundia, bi mila milioitako bide ederra ez duk ikusiko. Jende tzarrek hauteman zuten herriko gain hartan, lehen hego haizearekin elurra urtzen zela.

Denek badakite, nolakoa haizen eta esan diek, behin, erantzun hion Orbeleneko etxeko jaunari, denen aurrean, afari batean: Jainkoaren hurbilenetik jarri haizela, bekatore haundiena haizelako. Egia da

eta tupustean...ametsetik edo esnatzez haiz... huts eginak... oroitzapen txarrak urruntzen. Ez haiz *Jojo* arrantzalea, “arrantzuan dabilena emazte ta hiru haurren hazteko”. Ez horrelakorik... ez hi, On Jose herriko erretorea haiz. Elizako dorretik lehen dangak jo du. Laster meza ematera joango haiz. Eliza jendez bete-betea izanen duk eta aste guztian gure hizkuntza zaharrean dotrinako haurrekin hasiz zahar erietaraino lan egingo duk. Ala hau beste amets bat ote?

(1994)



## ULALAH JAKINTSUA

Laneko langileei esan nielako ulema nintzela. Ulalah gaitzizena eman zidaten. Orain, hispaniko horien erdeinuz bost axola: musulman karitate zerbitzuaren buru bainaiz, baita Las Navaseko meskitaren zuzendaritzatik bizi. Teologia ikasketa hoberenak lehenik Al Kahiran eta Saudi Arabiar Arabiar egin nituen, baita geroago ere Afghanistanen.

Pozik nago egiten dudana lanaz, ezen hainbeste musulman daude europar kristau ustel horien artean bizitzen. Hemen, Espainian, andreak agintzen dute, abortua lortu dute, homosexualen aldeko legeak. Hemen, espainiol andreak aukeratzen dute zenbat haur izanen duten edo batere ez. Ez ditugu guretarak horrela ibiltzera utzi behar. Andreak haur egiteko da, senarrari obeditzeko eta ahalaz etxean egoteko. Hortik kanpo, bizio guztiak ikas ditzake: oilo ibiltari azeriaren janari. Eta janik balira honela dabilzan oiloak, hainbat hobe.

Hau eredu txarra ematen dieten musulman neskei! Ezin da europar telebista bat ireki, jendea ohean larru jotzen edo gorputza erakusten, ikusi gabe.

Zorionez, guk parabolikoarekin Al Djezira errespetagarria hartzen dugu.

Kristauak ez dira gai, orain, beren herrian oreka baten mantentzeko, morala baten, diziplina baten erdiesteko. Zigorra merezi dute eta uste dut hemendik mende erdi gure ideiak, gure sinesteak, europarrei sartuko dizkiegula buruan. Mendebalde honen Europa horren piztaileak geu musulmanak izango gara, denak guretartuz: gure emakumeen sabelez garaituz.

Jokaera hori baizik ez balitz Europan, baina larru gorritan hondartzetan, erdi biluzik karrketan, puta bezala jantzirik. Benetan, gizarte degeneratua da hau. Geuk gureak salbatu behar ditugu. Arrazoa dute auzoko mutilek neska gonadun laburra puta iritziz eta hala-hala ipurditik zimikatuz. Gizon galtzekin neskak ez dira hobeki...gonak, gonak haientzat! Gizona gizon da. Ez zaio ihakinik egin behar.

Itsusiena da frantses gobernuak nahi lukeela musulman alabak buru hutsik eta beloa kendurik eskolasar daitezen. Frantzian banengoke, nahiago nuke alabak eskolarik ez izatea. Gainera, nireak Espainian ere ez du ikasketa luzerik egingo. Ezin da langile eta ama familiako izan.

Bestalde, nahikoa ume eginaz subentziaz bizi daiteke, lasai, etxean, gizonaren pozgarri. Alabari datorren udan Mograbian senargai bat aurkituko diot. Geuk, musulmanok gure emakumeen sabelekin europar endekatu horik garaituko ditugu. Intxallah!

Hain zuzen, etxean eztabaida izan dugu. Alabak, bere neba gabe kalera irten nahi zuen. Berari bela-

rondoko sendoa eman diot eta nire andreari alde jarri zitzaiolako sekulako jipoialdia. Badago, musulmanentzat, liburua ondo saltzen dena, erosi dudana, esaten duena, zergatik andrea jipoitu eta nola egin espainol poliziak ez dezan aztarnarik, ubelik ikus. Liburu hau praktikan jarri dut. Etxean andrezkoak zuzen dabilta.

Andreak berriki esan dit, zergatik ez diegun mutili, neskei eskatzen diegun zorroztasuna eskatzen, hor kanpoan, lapurretan, eta droga trafikoan omen direlako. Mutilak ez dio inori konturik eman behar eta batik bat emakume bati. Mutila errege, *malik*, sortzez aitaren aintza da. Andreak, apika, alaba igor lezake igerilekura, han gizonezkoak erdi jantzirik daudenean, andreak utz lezake mediku gizon batek iker tzera. Horrelakorik ez. Susmo horik aski izan zaizkit andreari berebiziko zafraldi gogorrenaren emateko.

Herrian diote noizean behin andrea alfonbren gisa, jo behar dela; ez dakikezu zergatik baina berak badakieke.

.....

Gorago irakurri dituzuenak, nire senarrak idatzi zituen. Orain, ezin du idatzi, ezin da mintzatu eta niri egin dizkidanak jasan behar ditu. Elbarritua eta mutua da. Alabaren aurrean azoteaz jotzen ninduen batean oihuka “hilko haut” esanaz, bere haserre gorrian buruan odol kolpe batek mintzoa kendu zion eta bat batean gorputza zurrundu

Hogei urtez tratu txarrak irauin ditut, alta, hasieran oso harro nintzen ulema batekin ezkondu nintze-

lako, arabiera irakurtzen zekielako eta denek jaun bat izan balitz bezala agurtzen zutenean.

Orain, herriz, aldatu gara. Auzoan ez dago musulmanik. Ulema Ulalah haundiak bakean utziko nau, baina ez da horregatik nire alaba puta bilakatuko. Beharbada, senarrak, ulemak, arrazoi zuen espainol gizartearen usteltzeaz berba egiten zuenean, baina ez nire jipoitzeko eta alabaren iraintzeko zioz.

Beste gisaz joango da familia. Udan hilabetez lanean ipiniz semeei lana zer den irakatsiko diet; gainera alkoholak jendeari zer kalte egiten dion irakatsiko diet; bestalde neska mutilek bakoitzak bestea errespetatuz, familia baten egitekoa dutela buruan sartuko. Ikasketak egingo ditu alabak eta beloa sudur zapi erabiliko.

Alabak arabieraz idazten ikasiko du eta Koranaren egiazko arauak hartuko, ez *xariaren* ez eta *hadizen* zalantzazko legeak. Gure poesiaren edertasuna gozatzten daki eta txiki zenetik isilpean berak olerkiak idatzi gura zituela kontatzen zidan. Unibertsitatean Jakintza ikasketak egingo ditu. Hau da senarrak ezer egin gabe jasan beharko duena. Ez gara gehiago, inoiz, herrira itzuliko baina ez gara europartuko.

## JESUS APEZETXEA ETA ARTZAINA

Apezetxea, hau da nire deitura, dirugabez aldatu ezina. Jainko gabea naizelarik Jesus izena. Ateo, haragin beltzekin ibili nintzen, baina haien argudiatzez, arrazoiaren argiez aspertu nintzen. Batzuk zioten, jainko gabe lasai bizi zirela, besteek ez zela lasaitasuna aski, klero zapalkuntzaz behar zela herri xehea argitu. Hitzak... hitzak... aho betegarri! Arrazoizaleen Bata-sun horretan sartu nintzenean, aski laster ulertu nuen beren argudioak zirela, zergatik erlijioen sineskeria sinesgaitzak galarazi behar ziren. Zergatik zioten baina nola egin behar zen, ez zuten eztabaidatzen.

Luc Siffer, lagun zaharra, herrian berriz agertu zitzaigun eta gure auzunean kokatu. Antiklerikal talde eraginkorragoa sortu genuen. Hasierako bileratan entzuten zirenak, hauexek ziren. Nik, andrearekin hautsi egin nuen katixima zozo horretara, semea igorri nahi baitzuen. Ni ez nintzen ezkondu ahal izan bihotze-koarekin jakin zuelako ez nintzela kristaua. Beste batek zion andreak erabat utzi nau, haurrekin Javaren Lekukoetara joateko. Askio zio zeukaten ekintza bideetan sartzeko. Nahikoa hitzekin, ekintzetan sartu behar genuen. Herriaren sarreran Luciferek George Mouth

ebanjelikoek artzainak landatu gurutze itzela ikustean, odola irakitan jarri zitzaion. Lagunei esan zigun, lehenbailehen, gurutzea egotziko zuela.

Atzo egin du Luc Siferrek. Atzo gurutzea erori da, baina laguna azpian hartuz. Lucifer hil da. Berehala, Ebanjeliko sektaren irratiz, prentsez kartekez poztu da; gutaz iseka egiten ibili “Jainkoa desafiatzen duzue-nean, zigortzen zaitu.” Gurutzea berriz eraiki dute. Beste lagun batek gurutzeari gasolinaz su ematen zebilela bere burua erdi erre du. Berrero, sektakoek beren garaitza aldarrikatu dute.

Ni ere asean naiz izen deiturekin, ez naiz lagunentzat Jesus Apezetxea, Marat Bakunin baizik. Lagunei esan diet, halere, hoberena zela tenplura joatea. Goaitatu behar genuen. Andreak ziren gehienik ospakizunetan ibiltzen, baina behin gizon bat ikusi genuen, tenplu heiapean zain. Lagunekin ebatzi genuen gizon traidore hori zigortu behar genuela, zikiratuz, irenduz.

Eta halaxe iluntze batean, han zegoen gizona tenplu kalostrepean; bakoitzak labana eskuan, hurbildu gintzaion. Jauzi batean haren bizkarretik lotu, baina elkar oztopatu genuen, elkar zauritu, eta sugearen moduan gizonak gure eskuetarik ihes egin. Etxera sartu ginen zaurien hertsatzera.

Biharamuneko egunkarian, lehen orrialdean, biktimaren argazkiarekin:

“Eraso itsusia”

*Ateo bezala ongi ezaguna zen Babeuf Prudhon jauna elizaren ondoan, dirudienez fededun batzuk eraso*

*dute eta kastratu nahi izan. Berak praktetan urradura batzuez kanpo ez du zauririk, baina erasotzaileek, elkar kolpatu omen dute. Ez al gara orain erlijioa dela-eta nahaspiletan bizitzen hasiko. Nolanahi, hirizaintzak bere peskizak eginen ditu, eta biktimak egia eskatzen du. Bestalde, erasotzaileak barregarri hutsak dira, era batea, denentzat kaltegarri bilaka litezkeenak.*

Bai, barregarriak izan gara, berriz, gure ikusezinak zeuzkana zikiratu nahi izan, baitugu. Geroztik, poli-ziaren beldurrez, ez gara bildu. Nik ere, beste bide bat hartu dut, etsaiekin borrokatzeko hobeki ezagutu behar dira. Eliza haren eragina hobeki ulertzeko bizpahiru aldiz haren tenplukizunetara ibiltzea erabaki dut. Lehen, bigarren, hirugarren sermoiak entzun behar izan ditut. Harritu naiz sinestunek zeinen alai eta lasai diruditen, beti kantuz. Gero, haiei begiratzean konturatu naiz andre saldo horretan txiroak jende bakunak bazirela, nolabait gringoen karitateak bilduak, zeren predikuan artzainak beti diru laguntzak aipatzen baitzituen; bestalde aldi guztiz hexakotista fedek sendatu jendeak mintzatzen ziren, berez sendatuak, erremedioz eginak edo gezurtiak. Nork daki? Segurik horien artean baziren eriak mirariaren zain.

Aspergarriena zen artzaina nola sexualitateaz mintzo zen. Zion, andreen erdiek ez dutela nahi haina atseginik sexu harremanetan eta hor leku egokian jotzen zuen, baina jakina, xehetasunik eman gabe, ezen andrea ume egiteko baitzen ez zelako beste joko txarretan ibiltzeko. Joko horiek gaixotasuna dakartelako, HIES eta beste, hil eta gero infernura eroaten.

Bai, gaurko gaitz guztietarik babesteko sermoiak egiten zituen, artzainak. Horiek guztiek, antiklerikalago baizik ez naute egin, baina honela aztertu dut horien artzainak daukan karisma. Eta zergatik geuk ateo edo antiklerikalek ez dakigun jendeen liluratzen. Ahots emea du, keinu sotilak, begitarte eztea, hots irudietako aingerua da gizon hori.

Gero, artzainari arratsez goaitatzen hasi nintzaion. Gaur, ilunabarrarekin etxera sartu denean, jarraitu natzaio. Bere buruaz segur atea zabalik utzi dit. Ordu laurden bat itxaro egin eta ezkerreko gela batera sartu naiz eta eseri. Bat- batean, harriduraz andre bat biluzik sartzen da gelan. Galdetzen diot artzainaren andrea denez eta hark artzaina bera dela. Ongi etorria ematen didala. Beraz artzaina, artzaintsa da.

—Orduan hauxe da zure karisma? Eta honelako gorputzarekin sexuaren aurka hitz egiten duzu.

—Zu bezalako bat itxaroten nuen, gizona. Ongi badakizu eta ospakizunetan ikusi zaitut, sexuaz mintzo naizela, zer den jakin gabe. Antza duzu irakasle ona izanen zarela, nire deabru goxoa!

—Eta zer egin behar dut, Irma.

—Nik bezala jarri, anatomia konparatua egin dezagun, zeren baitakit nik ez dudala zuk daukazuna eta nik badudala zuk ez duzuna, horregatik elkar osa dezagun.

Ez dakit zein izan den irakasle onena, ezen batzuek lasterrago ikasten baitute aditu izaten. Honela, antiklerikalismotik sendatzen nabil eta bera ebanjelikotasun guztia galtzen, aingerua izatean izan ezik. Atseginarene mundua nire jainkosa da eta ni haren



jainkoa, beste guztia sermoi dela erabaki dugu, eta horregatik elkarrekin, jainkoak bezala, bizitzen saiatzen gara.

Ez dezazuela uste, hasieran nik ere honela pentsatu bainuen, nire xarmen bidez gogatu nuela. Aitor-tu zidan, nolanahi, sekta utzi nahi izan zuela, zeren agindu zizkioten ekintzetan ez zelako sartu nahi izan.

Lehen agindua zen abortuaren aurka manifestaldiak antolatzea. Bigarrenik, hilaurra aholkatzen zuten elkarteak setiatu edo apurtu, hirugarrenik hilaur egiten zuten sendagileak mehatxatu, haien ontasuna puskatu, haien buruak ere zaflatu. Bestalde, emakumeei artamendatu behar zitzairen beren arteko kiroletan ibiltzea baizik, igerileku eta hondartzetan beren gorputzak ez erakustea. Kontrazeptiboen eta sexu eritasunen arriskuak erakustea. Irma ez zen praxirako, ekintzarako egina, hitz egiteko, logoserako egina. Elkarrekin bizitzea erabaki genuenean, hauek guztiak lainotu eta ezabatu behar genituela asmatu genuen.

Azken bilkura bat egin dut nire lagun ohiekin eta Irmari artzain soinekoekin agertzea eskatu diot. Ikusi bazenitu, marikoen etsai haundi ziren haien aurpegiak, artzain itxura zuenarekin ezkontzera nindoala azaldu nienean. Lotsagarria! Traidorea! entzun nuen eta Irmak bere artzain jantziak eta ileordekoa kendurik andre eder agertu zenean, denak mirespen txistuz. Nire sermoia laburra izan zen, lagunek beren xarmak erabil zitatzela erlijio sukarrari buru emateko. Gure arteko lokarria finkatzeko, argudio argiak izan genituen, gizona nola den burmuinez mugatua arrazoiaren eta fedearen predikuak ameskeria hutsak

zirela aitortu genuen; baita onartu mundu honetan mahaiko eta oheko atseginek baizik ez zutela balio.

Tenplua utzi eta Ziterako uhartera lekutzera joan ginen. Grekoa egin nintzenean izena aldatu nuen eta Arcadio Pastor izena hartu. Uhartean ahuntz gazta eginaz eta txilibitu soinuak eginaz, bizi gara.

## HAURREN EPAILE ZINTZOA

Bai, epaile zintzo baten etxean bizi naiz. Bai, lege gizon baten ohean gauaz egoten naiz. Ez. Ez naiz epailearen andrea. Entzun nola harilkatu den guztia. Pitxitegi batean zilar eta urre ebasten ari nintzela, harrapatu ninduten. Ohoin txarra, lapur traketsa nintzen. Hamalau urteak baizik ez nituen. Haurren Auzitegiko epaile horrek hona zer esan zidan:

—Hain polita izan eta lapurretan?

—Bai. Dirurik ez... lanik ezin...nonbait zerbait hartu behar.

—Hartu? Baina zure edertasuna emanaz geroz ez duzu ezer ebatsi beharrik?

—Ez dut ulertzen.

—Ez dun aitortu nahi.

—Aitortu, gaizki egin dudala?

—Ez inguru-minguruka ibili. Auzitegi batean agertzeko eta erdi-presontegi batean usteltzeko, neska ederregia haiz...itzalpean noitzeko, aspertzeko, igartzeko ez, ez? Hi bezalako lore batek argia behar din.

—Zeuk esaten baduzu, zeu zara nagusia hemen, ez?

—Beraz, hobeki ulertzen naun... Mantsotu haiz.

—Nola ez, Jauna? (badakin hire geroa karrika hutsa, hotza eta gosea izanen dela, saiatu behar dun, proba egin).

—Hik, nire baldintzetan sartuz, nahi ezkeru dossier hau galarazten dinat?

—Baldintzak zein dira?

—A neska argia haiz... nirekin bizitzera etorriko haiz.

—Eta etxeok zer?

—Bakarrik bizi nun.

Geroztik? Ederki jantzia nenbilen, ongi jaten nuen. Egunak hasieran ederki eta goxoki joaten zitzaizkidan. Haren etxea jauregitxo zen, parke zabal batez inguratua. Alegia, babestu behar nauela, ez dut, ostera, bera gabe, kanporatzeko eskubiderik oraino.

Eguna bai, lasai, baina gauak purgatorio. Ohean gizona, zikina, hatsez gogaitagarria, goza luzea da. Haren fantasia guztiak pairatu ondoren, ordubeteren buruan, ez badiot atseginik eman, astintzen, jipoitzen, zaflatzen nau. Ez dut inori kexatzeko zuzenbiderik: gaizkina naiz. Nire etxeok balekitez esango lukete puta hutsa naizela, berdin nitaz gomutatzen badira, nitaz ez baitira aspaldixko arduratzen eta ni ere haietaz.

Nolanahi, zelan egin, non nengoke bestela ez banindu epaile-ugazaba horrek bere etxean, bere ohean atotsi? Nire kasua ezabatu ez balu eskola-presontegi batean edo serora-monjeen eskupean nengoken hezten, nazkatzen. Baina, hemengo egoera ere apur bat okaztagarria zait, bakarrik ezin irten naizelako.

—Jauna!

—Otoi neska! jauna utzan eta Antton dei nazan.

—Antton jauna, paseatzera joan nahi nintekezu.

—Katerina, hemendik ateratzen bahaiz ez dinat agintzen, ezin dinat hitza eman ez hautela espetxera eroango.

—Baina, hori gerta balekit, salba nindezakezu, ez?

—Ez. Hori gure baldintza bat dun. Ezen nork frogatuko dit ez haizela kleptomana, berriro lapurtzera gerturik?

—Beraz nire bizi osoa etxe eder honetan preso igaro behar nuke?

—Preso, preso. Zer hitz itsusia. Ez. Geroago ikusiko dinagu, zer egin.

Bai. Gizon zahar honek uste din, hire askatasun gurak ahaztuko dituala, hingatuko haizela, amore emanen eta haren neskame-ohaide-erizain bilakatuko. Horrekin ezkonduko? Ez.

Gogoetatzeak berak nazka ematen din. Hala elkarren ondoz ondo hilabete berdinar joaten zaizkin. Zer atzamarretan jaitsi haizen oharturik, geroago eta txarrago den ugazaba baten zakarraldiak jasaten ditun. Noiz arte?

Atzo, abere baten moduan mahaitik atera eta idoki nauanean ohera eroateko haren hiltzeko sua begietan piztu zait. Arauez ez du ikusi? Zer du halaxe gogor izateko, ni geroago eta maiteago agertzen naizelarik. Ezin mendeka, ezin apentzarik har. Gosea eta hotza berriro bizitu behar nituzke. Ez.

Bi urte joan zaizkin eta nagusiari hireganako zeukan irritsa epeldu zaion. Orain, ordubete behar

din gozatzeko eta hobeki egiteko solairuan ispilu haundi bat ipini din, egiten dituen larru jotze akrobazien ikusteko. Zahartzen ote ari da benetan? Ala beste bat aurkitu eta kanporatuko hau?

Bigarren udaberrian gaude. Joan den astean zerbait berririk gertatu zain. Neskame zaharraz kanpo bisita berria. Bisita berria haren iloba gaztea izan dun. Aingerua dirudi ederrez eta irri bihotz sarkor batez mintzatu zain. Harekin, benetako gizon harekin bai pozik, zertuko huke...Abokatua omen dun. Atzo, une labur batez, buruz buru gertatu gara eta honela berba egin din:

—Ez al zara Katerina ohartu mirailak begiratzuz zeinen ederra zaren.

—Batzuetan edertasuna kaltegarri da, jauna.

—Gaizki erabiltzen denean bai.

—Zer diozu horrekin?

—Ez zara zahar baten koltxoi izateko egina.

Eskarmentuek argiturik, isilik egon haiz. Gizon gazte horren ahotsa, haren garbi usaina, haren lerdentasuna ez zaizkik, ostera, gogotik joan. Gaua ernerik joan zain. Handik landa, ahaleginak egin ditun ez harekin egoteko.

Haren hitzak egiati zirenez ezagutu nahi huen. Gizon horrek, apika, lagundu hentzake askatasunaren berreskuratzen. Gaur, berriro, iloba gaztea etxera agertu zaigu. Bakarraldi motz batean, buruz buru agitu garenean, betiko hitz goxoak erran dizkin, hik ordea:

—Isil zaitetz otoi!... Zure osabak beldurra ematen dit.

—Ez duzu nirekin hitz egin nahi?

—Utz nazazu bakean, gaizki nago...etzatera noa.

Ondotik etorri zait

—Non min duzu?

—Buruan.

Bere esku ederrekin lokiak ferekatzen laztantzen dizkin... aurpegia ere denbora berean. Intziria atera din. Burua eskuan artean hartu din. Arnasa galtzeraino musu luze barnekorra eman. Kanpotik osabaren urratsak entzun ditugu. Juan, iloba kanporatu dun. Behean, berba egiten eta barrez entzun ditun. Lokartu haiz amets labur batean. Jaun horren arnas goxoaren, ordez, osabaren ardo hatsak itzartzen hau. Asperra, nazka gorde behar dizkion. Intziririk ez atera. Ilunpean hagoela hire irri faltsua ez din ikusiko.

“Gaur, ez naiz etxean egongo”, abisatzen nau. Beste batengana doa ala zer? Epaile jauna badoan eta etxeke sarrailaren giltzarrapo karraska entzun dun: aske eta preso hago.

Etxe isilean goizik eguzkia goizik leihotik sartu zain. Lorategian hago. Gogoa ametsetan ibiltari. Batean, giltzen karraska berriz eta egiazko Juan agertzen zain. Elkarren besoetara erortzen. Goiz zoragarria. Bazkari zoragarria. Arratsean erokeriak: haren gorputz eder gazte sotil malguarekin zer gozatu dunan.

Atea jotzen digute eta erantzuna itxaro gabe, hortxe dago Epaile Jauna sartzen:

—Urdaina, hau dun eskerra! Ilobarekin larru jotzen, ziri jokoan!

Ilobak, bitartean, arin ihes egin din. Jaikitzen haiz. Epaileak, epaile zintzoak azoteaz gogorki jipoi-tzen hau, zurratzen hau. Jantziak urratzen dizkin. Gelditzen denean, hire burua botatzeko leihoa ireki-tzen ahalegintzen haiz. Iletik hartzen hau. Belauniko jaurtitzen.

—Har hire maleta zaharra! Sar itzan hire soineko zaharrak! Goazen auzitegira!

Seietan Auzitegiko bulegoan hago Epailearen etxe ederretik goazenean, han beste neska bat dakusan... ni baino ederragoa. Aldikaria...Txandakaria? Epaileak ederki izorratu nau... iloba urde hori...txerri gazte hori zepo baten gisa hedatu...epailea nitaz ase-a baitzen, ez niolako irristsik pizten gehiago.

Epaile berriak, zaharrak desegin ez zuen, duela bi urtetako dosierra atera din. Zer esan behar dion? Bila dezala bi urtez non bizitu haizen? Epaile zintzoa, neskame zahar mutua eta iloba abokatua, ukapenean, ni baino zintzoago, sinesgarriago agertuko ditun. Galdua hago. Ez haiz beharbada seroren zuzentze-eskolara joango, zoritxarrez, baina Adin Txikiko Haurren eskola espetxera...Aurten, hamasei urteak bete ditun eta jadanik haurren epaile gizonaren ohaidea izan.

(79.12.6.)



## ABOKATU LOTIA

Asperten hasia hintzen. Epaimahai buru eta epaile nagusi izateaz higitua haiz; jendeen ahulezia guztiek okaztatua. Badirudi grazia gabeko zootegian hagoela. Bat batean, alaitzeko arrazoia izan duk, ezin itzarriz egon den abokatu baten jokaera ikusiz. Hiriko eta erresumako abokatu ospetsuena duk, baina lotia

Ordu laurdena bada haren aferaz jarduten dugu-la, lekukoak entzunik. Eta hura beti erdi lo. Keinuu egin diok ondoan dagoen gizonari eta hark bere ukalondo gogorraz aienez zutiarazi dik. Abokatuak: zergatik egin diok hori? Zergatik hain gogorki jo? Azaltzen diok toga beltzdunari, ordu laurden hartan bere afera jarduten dela eta berak lo edo lo itxura eman duela. Hitz egin behar duela.

Jaikitzen da. Bere ohitura txarrez ez dio akusatzai-leari eta epaimahaiari baizik begiratzen. Zutik, badirudi haren buruak pisu haundia duela ezen ipurdia baino metro bat aurrerago dabilelako. Azkenean, bere togaren hegalak, txori batenak bezala erabiliz, betikoa entzun behar dugu. Biktimarik ez dago, akusatua da biktima haurtzaro nekea dela-eta.

Askotan, honelako astakeria ederrik entzuten da. Gizarteak hau, aitak hura, amak beste zerbait. Amamaren gorabeherak entzun ondoren, orain amarenak.

—Jaun andreok, jakin ezazue sobietarrak Berlinen sartu zirenean mongoliar batek gure bezeroari ama bortxatu ziola eta hortik “gu” jaio berri ginela. “Gure” amak ahalkez baserrira bizitzera bidali gintuen.

Zer komedia abokatuekin, beren buruak akusatuarekin asimilatuz “gu” diote beti eta “gure bezeroa” erraten baizik ez dakite. Ez naiz ausartuko galdetzera “gure ama bortxatu” dionean, akusatuaren bikia edo anaia zenez. Entzun dezaiozun:

“Gu baserrian gaizki ikusiak ginen. Denek bazekiten nor nintzen. Mutilek harrikatzen ninduten.

“Gauzak ez ziren hobetu hirira bizitzera joan nintzenean. Zazpi urteak nituelarik, amak berekin hartu ninduen eskola nedin. Bitartean, ezkondu zen eta hiru anai erdi baneuzkan. Pentsa zelango harrera egin ziguten: bastarde, txino, tartaro gaitzizenez aipatzen gintuzten. (Hamaika ziorengatik barrea egiteko gura daukat). Anaiek, nirekin, ez zuten jolastu nahi. Kaiolan bezala sartu ninduten

“Geroztik, giltzapean kaiolan egoteak izutu gintuen. Kaiolan! Kaiolan! Zuek ez dakizue zer den presondegia. Gure bezeroak ez du hori merezi. Gure bezeroa biktima da”.

“Gure bezeroa” ahoan eta moda zaharrez ez du haren izenik, abizenik edo sexurik aipatzen eta bere

erridikuluaz konturatu gabe jarraitzen du. Protesta bezalako zurrumurruak auzitegi gelan. Jarraitzen du, ordea:

“Bai hala bazterkina izan ondoren ez zen gure bezeroa Alemanian egon. (Ez dakit oraindik zergatik Alemania beti aipatzen duen, zer du ikusteko gaurko gaiarekin). Desterratu ginen eta Frantzian, kanpotar, aleman hiritar, metek itxura horrekin, batik bat, gizonen alde-tik, zer nahi jasan behar izan nuen.

“Jaun andreok gure ekintza erdizka baizik ez genuela obratu. Gauzak argiago izanen ziren azkeneraino joan bagina. ”

Auzitegi gelan, isiltasun bitxi baten ondotik, sekulako zurrumurru, erdi protesta, erdi irribarreak, lehertu dira; baina zer arraio nahi du abokatu horrek, akusatuaren sunsitzeko bidea hartzen du. Akusatua bera aurpegiz zuritzen hasi da. Abokatua isilduko ote da? Ez.

“Bai, jaun andreok gure bezeroak hartzeko zirkinen egoteko orde, andre hari dena hartu balio hobe”.

Entzule guztien artean, protestak eta isiltasuna gero. Abokatu horrek akusatuari ez dio oraindik begiratu eta epaileak:

“Barkatu abokatu jauna zer afer aipatzen duzu? Zein da zure bezeroa? Begira zaiozu, berak zer sexu duen kontura”.

Begiratu gabe dio:

“Jauna badakit zer egiten dudan andre lapurra dut bezeroa”.  
(Entzuleak barrez lehertzen.)

—Ez. Zure bezeroa ez da andre ohoina, gizona baizik. Ez da alemana frantsesa baizik, eta andre bat bortxatzea erdizka egin duelako, haren abokatu zinen. Abokatu jauna itzul zaitetz siestara ez zaitugu gehiago hitz egitera behartzen.

## HIRIZAINAREN LAGUN MAITEENA

Kasketa gabeko hirizaina, polizia gizona naiz. Zorionez, afera berri horren aztertzea niri egokitu zait. Edozein lankide baino lehen arrotatu emazte zaharraren etxera iristen naiz. Leku ederra, noski, parke zabala inguruan, egoitza erdian.

Giltza auzoan eskaturik sartu baino lehen atea ireki didan andrearekin hitz egin dut. Atera diodan bakarra, denek bazekitela aurreko astean, haren iloba lapurra hortik igaro zela. Lekukoek gehiagorik ez baldin badakite, nire lana errazago. Kasu horretan nire lagun minak bazekien hori; aitzaki horrekin ere andre zaharraren ikustera etorri zitekeen.

Ikus dezagun barrena. Ezkerretik ateak, tiraderak, poliki irekiak izan dira eta eserlekuak tokiz aldatuak. Eskuinetik berriz gauzak nahasian lurrera botatuak: “lagun mina ” bere ikerlanean eragotzia izan da. Apur bat burua galdu-eta, esku larru bat galdu eta lurrean utzi du. Lagun minak, polizian nagoelako zori ederra badu. Haren eskularru bakuna, sakelan sartzen dut. Haserretu egin zaioke, agian, andrea?

Ikus dezagun hurbilagoetik lagun minak hain dorpeki zer bilatzen zuen. Andre zahar bat, ongi pentsatu-eta, dirua soinekoetan duela badabil. Hortxe zegok, hobeki ikertzeko andre zaharra lurrean etzana eta hilik. Urrunegi joan duk laguna. Esku azkarrak, gotorrak ditu hiltzaileak, hatzaren aztarnak urkatu lepo inguruan ikusten dituk.

Baina, ez duke ikertu. Iker dezadan. Bai, hortxe gonaren barruko aldetik azpildura baino goraxeago, zisku josia. Dirua hartzen duk. Zutitu baino lehen alboan dagoen larruzko diru moltsa biltzen duk, hiltzaileak galdu gordailu hori irekitzean, nortasun agirian niri begira, anaia irudi, adiskide minaren argazkia. Izenpetu balu ere ez zuen hobeki eginen. Behar ere, hemen nago, bestela lagun mina akabo!

Kanpoan, lorategiko sendan beste polizi lankidearen urratsak entzun daitezke. Sartuko duk. Atea irekiko diok, lasai. Hire poltsikoan dauzkak esku larria, larruzko diru zorroa eta andrearen sosak. Badakik lagun mina nola sartu den: esanaz bisitatu zuen iloba txarrak, lapurtu dirua haren etxean gorde zuela. Etxe ikertzeko aitzaki ona, baina agureak ez zion sinetsi.

Ez duk, bistan da, inoiz hiltzailea harrapatuko, hi haizelako hiltzailea, hire buruaren lagun minena eta omen, hirizain zintzoa eta iaioa, hi.

(1979.12. 3)

## TRAFALGAR HIRIZAINA

Amak izen hori ipini zidan eta orain berrogei urteak ditudala jendeek ezagutzen naute. Haurtzaroan eta gazte garaian, gurasoen aginduei ez nien obeditzen. Gogorra nintzen eta amak eskuarekin eta aitak azotarekin eman arren, ez nintzen zeditzen. Gurazkoa egin nahi nuen.

Nire hezteko, lasaitzeko, karate eta boxeo eginarazi zidaten. Horretarako, gorputz egokia neukan. Morrosko bat nintzen hamabost urterekin eta gurasoak ez ziren nire zaflatzera gehiago menturatzen. Gimnastika irakasle izatea amestu nuen, baina ez nuen inolaz ere batxileratoa gainditu edo berak gainditu ninduen. Lizeoa utzi nuen.

Garai haietan, kolegioko diploma nahikoa zen polizian sartzeko eta hala egin nuen. Orain, ezin neza ke: Ziurtasun Zaindari Konpainietan lizentziatuak sartzen dira. Ez dira, ostera, gure eginkizunetarako egokiak. Ez dakite ez porraren, ez ostikoaren, ez gasaren erabiltzen. Ekimenik gabeko jende hizlariak dira. Nik neuk, badakit zer egin eta nahiz ez naizen,

diploma ezaz, sekulan hierarkian igoko, buruzagiek ongi ikusten naute. Lan eta ekintza gogorren egiteko ni banaute: C.R.S.a.

Azken garai honetan badugu jolas ederra: biolentzia gabeko demokrata gazte astakilo horiekin zer partida ederrak! Ni justizia jauregira banoa. Eta andreari diot banoala “me payer des petits basques” demokrazia zer den ikas dezaten. Ordena! Frantzian frantsesa hitz egin behar da.

Auzitegian ere, mukizu horiek ez dute frantsesez mintzatu nahi eta nork eman die jatera, edatera, eskola? Frantziak. Berek diote “Istakolak” eta gurasoek.

Zer nahasle andana! Lurrean etzaten, auzitegi aurrean esertzen. Guk, edo hobeki esan nik, batik bat, gasa botatzen diet aurpegira, ostikoak darabiltzat, eta porra eskuan lepoan, bizkarrean jotzen. Lagunek narraska eramaten dituzte. Nik ez diet barkatzen ahal bezainbat min egiten diet. Ezagutzen naute. Demokrata horik auzitegira datozen bakoitzean hantxe nago.

Nire talentuen erakusteko ez zait hori baizik geratzen, lehen grebalarien aurka ibiltzen ginen, baina horiek Pariseraino besoak dituzte eta debekatu digute, kalean euren jotzea, baina behin edo beste, lantegi okupa aldietan ez ditugu eztiarekin kanporatu.

Manifestaldiak aspergarri zaizkit herriko auzapezak manifestatzeko baimena eman ondoren, guk begira egon behar dugu. Niretzat, ekintza horik nahaske-riak dira eta nik gizarrean ikasi dut ordena behar dela.



Horik guztiak gizartearen etsaiak dira, eta ni gizarte sano baten alde borrokatzen naiz.

Ni, indarraren alde nago eta indarraren erabiltearen alde. Etxean ere erizain dudan andreak bada-ki obeditu behar didala. Behin, jipoitu nuela andrea polizia etxera joan zen eta handik kanpoan ezarri zuten: senarra zin egindako hirizain gizonaren aurka ezin zela, lekuko gabe kexarik jarri. Etxera sartzean, beste belarrondoko batzuk eman nizkion.

Gure polizia ospea indar erabileratik dator, baina ni bezalako Trafalgar astintzaile, jipoi emailerik ez balego, zer ginateke Ziurtasunaren Zaindari Konpainiakoak. Ezer! Niretzat indarraren emaitza hoberena da: zenbat zauritu dugun. Azkenik, gazte bat minerva lepoan irten da ospitaletik. Beste behin, bakezaletasunaren zaporea eta demokraten kopurua beheartzeko, gehiago jipoituko ditut.

Orain, laugarren garagardoa edaten ari naizela, etxean sukaldetik telebistara noa. Goiz edo berandu pantailan agertuko naiz, baina zer deabru da telebis-taren gaineko paper hori:

*Trafalgar. Jarraizak hire abere lan horretan zakurra bezala defentsa gabekoen aurka ibiltzen. Etxetik banoa. Gauza guztiak uzten dizkiat. Dibortziatuko gaituk, ezen lege gizon batek eta mediku batek azken zafaldien ubelak ikusi dituzten, eta auzo batzuek ikusi hindutela egi-ten, salatu.*

*Ez naiz bakarrik joaten minerva ipini diodan euskaldunarekin bizitzera noa. Badakit, hark,*

*zuen kolpeei ez diela iharduki eta horrela, ni ere,  
errespetatuko nauela. Ezkontzaren hausteko abo-  
katuaren deia edukiko duk.*  
*(2004.ko urtarrilean)*

## IGERILARIAREN BIHOTZAK

Itsas herri batean jaio nintzen. Ez dakit ez ote dudan bi oinetan ibiltzen ikasi baino lehen igerika egin. Alta, gure herriaren iparraldean Baltiko itsasoa ez da batere beroa. Gurasoek “Igela” izena jarri zidaten, urean bezainbeste lurrian lauhazka ibiltzen nintzelako. Urean nengoenean haizearekin baino gehiago gozaten nuen, uraren laztan luzea eta itsasoan, omen, laketago igerilekuan baino.

Zoria gure alde zen, aita alderdikoa zen. Berlin Ekialdeko igerileku baten buru jarri zuten. Berlinen alderdikoek horrelako leku onak biltzen zituzten, gainera komunistak ginen garai hartan kirolak sekulako garrantzia zeukan, eta gure komunismoaren gaintasuna erakusteko urrezko medailak bildu behar genituen.

Egunero, igerilekuan nengoelako, laster, kirolzaileen ikusten zebiltzan adituek esan zioten aitari, alabak, nik, txapeldun izan behar nuela eta hala –igerian oso zintzoa eta langilea nintzelako – lehen lehiaketatik txiki guztiak irabazi nituen. Lehenik bi urte eman nituen Kiroldegiko Taldean. Asteazken lau eguneko igeri

egin behar zen eta urtean 800 bat kilometro egin. Nik askoz gehiago egiten nuen.

Geroago, Kirol Eskolan sartu ninduten Lehen mailan bi urte igaro nituen urtean mila eta bostehun kilometro eginaz eta bestalde “lehorreko ariketak” eta “ureko ariketak”. Hurrengo mailetan, urte bat bakarrik igaro nuen. Bigarren mailan “ariketez” kanpo, egunero, bi ordu igeri egiten genuen urtean, 2000 kilometro; hirugarrenean, bi ordu eta erdi eta 2500 kilometro. Laugarren eta azken mailan, hiru ordu egunean eta 3000 kilometro urtean.

Azken urtean nire kategorian, RDA edo Alemania Komunistako txapelduna izan nintzen, horregatik goi mailara igaro ninduten.

Besterik zen ordea nazioarteko txapelketetan edo Olinpio Jokoetaraino joatea eta hori zen nire sendagilearen xedea. Argalegi nintzelakoan, kirol medikuak, aspaldian, dieta berezia eman zidan: idiki asko jan behar nuen giharren loditzeko. Sukaldari aski ona genuen eta behin saltsan, bestean errebian, bestean aranparillan jaten ikasi nuen. Irents gaitzago zitzaidan gibel jatea eta beti garbaitan nengoen, behialako niri txerriki *delikatessak* gogokoago nituelako.

Erran dezadan zerbait ariketez. Lehorreko ariketak, goizeko gimnastikak, hauexek ziren: belaunak tolesturik, ahoz gora etzatea eta lurretik bizkarra altxatzea sabeleko giharren zailtzeko; sorbalden sendotzeko, gotortzeko berriz ahoz behera etzanik lurretik igotzea besoen indarrez, igo-jaitsi eginaz, hamar eta gero hogeit aldiz. Beste tortura asko zeuden lehorrean egiteko.

Ureko ariketak ez ziren goxoago. Lagun bati sokaz loturik eta soka hori kanpoan zirrindola batean igarotzen zelarik, igeri egin behar zenuen laguna tiratuz. Jarraian, txandaka hark zu. Beste tormentua zen igeri egitea soka bat bizkarrean eta soka hori polea batetik joaten zena beste muturrean zegoen hondar zaku madarikatura. Zaku hark eragozten zintuen eta uraren erresistentziara ohitzen.

Igerian, lastertasun edo abiadura lehiaketak egiten genituen, baina hor gure higitzeak eta mugitzeak kontrolatuak ziren: ez genuen eskua hein desberdin batetik, uretik, atera behar. Eskua inoiz ez gibelean, sekulan ez atzean utzi, baina gorputzak aurrera egi-tean, eskua gorputzaren luzean aurrera eroan.

Giharrak ordea ez ziren berehalakoan loditzen; orduan beste tormentu bat asmatu zidaten, pisu astu-nak altxatu behar nituen, geroago eta pisuago, mutilen gisa, halterofiloen gisa eginaz. Ez nuen luzaro iraun horretan, gertuketa zailagoetan sartu ginelako. Egia da asko igeri eginaz eta ariketa barbaro horiekin sorbaldak loditu zitzaizkidala, baina oraindik neska bat omen nintzen eta marken hausteko gizonek haina egiteko gai izan behar nuen.

Sendagileak eta entrenatzaile nagusiak ez zuten ideia bat baizik Olinpio Jokoetara iritsi nendin... Eta nola hori? Sendagilea gizon hormonak, testosteronak, bi urtez eman zizkidan Ekialdeko herri komunistetan txapelketak irabaz nitzan, baita Kanadarekin eta Sobiet Batasunarekin izaten genituen txapelketetan ongi atera nedin. Eta irabazten nuen.

Denbora berean, itxura ona izateko igerialdi bakoitzean zangoetako biloak bizar makinaz kendu behar nituen, ezen gizon baten ilajea ugariki sortzen baitzitzaidan. Amak ere esan zidan, telefonoz deitzen nuenean geroago eta gehiago gizon ahotsa nuela.

Olinpio Jokoak etorri ziren eta sei hilabetez hormonak utzi-eta –kontrolen beldurrez– suspergai batzuen hartzen hasi nintzen. Jakina, suspergai horiekin ez nuen indarketaren minik. Ziur nintzen podiumera igoko nintzela. Genetikazko azterketa egin ziguten, ezen esan omen zioten Jokoetako agintariek erdi gizon itxurak genituela eta hortaz susmo zerbait zeukaten.

Egun haundi hartan, 200 metrotako lehiaketan, abiada baino lehen, urean sartu nintzen. Atzera egin eta berriz, benetan, eman zenean lehena nintzen, lehen itzulian ere, bigarreanean, ordea, gaizkiago, arnasa estu nuen. Alta, arnasa hartzen ongi nekien: urpean hats beherapena eta birikak sakonki hustea ur azalera agertzean, jarraian, berriz burua urperatu baino lehen, hats gorapen haundienaren hartzeko.

Bazen besterik: nire bihotza taupada basatian zebilen eta indarkatzearen ondotik jarraitzen. Suspergarria aspaldiegi harturik, bat-batean, nire egiazko indarretara itzuli nintzen. Bosgarren atera nintzen eta podiorik ez, ospitalea bai.

Buruzagiak, beste lagun bat aurreratu baitzitzaidan, igerilari taldetik kanpora eman ninduen; berehalaxe aitak, baitzekien denborarekin hark ere kanpoa izanen zuela, gu Bohemiara joan-eta, aita Hungariara, alegia igerilariak lagundu behar zituela, Alemania mendebaldera eskapatu ginen.

Oraintxe, Mendebalde Alemaniaren hirixka batean bizi naiz. Kirol medikuak ikusi ez zuena, etxe medikuak aurkitu dit: arnasa, hatsa galtzen nuen, bihotzeko gaitza nuelako, aorta estuegi. Sendagile horrek esan zidan ez nuela gehiago igerilari izan behar.

Beren idi dieta igerilari *pro* nintzenean baliatzen bazitzaidan, orain kirola uztearekin nire giharrak gizen bilakatu zaizkit. Geroago eta borobilago naiz. Zerri bat. Nire gorputzeko bihotza erdi galdu badut, lehenagotik eta hormonak zirela-eta nire gizondu gorputzak nazka ematen ziolako, nire bihotzeko mutila ere galdu nuen.

Baten batek, horrelako hondatzearekin uste izan zezakeen nire burua itoko nuela, baina igerilari onegia naiz horretarako eta RDAk, politikeroek eta nire bihotzeko izanek, ez dute hori merezi. Kaka dadila haientzat. Biziko naiz.

## FUTBOLARI ERRABIATUA

Patrik, lau urteak bete zituen hartz jostailua erosi ziotenean. Amak uste zuen, iluntzean lokartzeko eta egunaz jostatzeko, haren larru bilotsu goxoak eta itxura baketsua gogoko izanen zituela. Biharamunean, ordea, hartz panpinak burua galdu zuen. Etxearen zoko batean, hartzaren burua baloitzat harturik Patri jostatzen ari zen, buruari ostikoka.

Horrelako ekintza amak gaiztakeriari egotzi zion eta belarrondoko bat eman. Zaflaren zergatia ez zuen Patrik ulertu. Zer atsegin bizia, oin muturrez baloiburu hori jotzen zuenean eta airera altxatzen! Hain zuzen, amak harrapatu zuenean pilota airean gora ibili ondoren, zaplazta eta guzti, lore ontzi baten erdira erori zen.

Gerora ere, Patrik ez zuen joera hori galdu. Kanpoan, karrikan zebilenean harri guztiei ostikoka ibili ohi zen. Behin ere harriak, ongi “hegaldata”, gizon zahar baten belauna jo zuen eta haren alboan zegoen andreak belarriak tiratu eta zartako mingarria eman kakanarruari. Baserrian ez zen hobeki jokatu,



ostikoka gaztainak sasiatara botatzen zituen baita ka-  
labaza txikiak lapurtzen baloitzat erabiltzeko

Jakina eskolan baloi txikia zeukaten, baina beti  
kristalak hautsi beldurrez, lurrean narraska tiratu  
behar zen edonola ate bakarreko zelaia zen.

Aipa dezagun haren lehen futbol sasi taldea. La-  
gunekin zarpaz eta gomazko baloia edo pilota gehia-  
go zena fabrikatu zuten. Jakina, pilota horrek seku-  
lako antzea eskatzen zuen, erreboterik ez zuelako, lu-  
rretik nekez eraiki zitekeen eta ahal bezain luzaz aire-  
an eduki behar zen eskuekin ukitu gabe, baina gor-  
putzaz baliatuz.

Jokorako ateak aldakorrak eta berehala eginak  
ziren, amek hain artoski garbitu bi jertse lur zikinean  
ipini seinaleztat eta kito. Hirigintzako etxe berri  
batzuk egitekotan zen orube lur lokaztia, ez hain  
launa, ez eta ordeka, haien futbol zelaia izan zen. Hor,  
Patrik bere trebezia erakutsi zuen, baina terrenoa ez  
bazen arazo, lagunei baloia ematea bai.

Hamar urterekin aitak benetako baloia eman zion  
eta hamabi urterekin futbol talde txiki batean sartzea  
erdietsi zuen. Haren poza! Etxean paretak inarrosteko  
jauzia eman zuen.

Hamalau urterekin bere kategorian, hiriko talde  
haundian sarrera egin zuen. Golak tiratzeko nahikoa  
ona agertu zen eta bere ospetxo hartu. Haatik, egun  
batez Patriren gertalariak hamabost urterekin eta ozta  
ozta hirurogeita hamar kilo zituelako, haundiegi zela  
talde horretan egoteko.

Hamazortzi urterekin talde nagusian, hoberenean zegoen. Besteekin jokatzeko ikasi zuen eta pixkanaka arin, gotor eta zintzoa zelako haren maitatzen hasi ziren. Lehen urtea bukatu ondoren urteko futbolari hoberena bezala agertu zen. Harentzat begiak! Harentzat zorionak! Harentzat bihotzak!

Aurten, negua ederki joan zaio eta txapelketan zortzi ekipo baizik ez dira gelditu. Azken zortzikoaren jokaldian Patrik beste taldeko bati muturrekoa eman dio eta artekariari gogorki mintzatu. Lehenbizikoz artekariak txartel gorria erakutsi dio.

Azken laukoaren txapelketan Patriren taldeak irabazi du, baina pausaldian bere taldeak gol bat gutxiago zuelako, berriro, artekariari irainez eta kapitainari bereak eta bi esaten, txistuz zeuden ikusleei ukabila erakutsi. Lagunek esan diote ez dutela inoiz kapitaintzat hartuko eta gerta baledi izendatua, ez diotela ezertan ere obedituko, harrokeriaz basagizona bilakatu delako.

Gaur azken partida da, txapelketarena. Ageri da Patri haserre gorritan dagoela. Lagunak isilik. Partidaren erdiraino Patrik ez ditu ostikada batzuk baizik eman baloia kanpora botatzeko. Jendeak txistuz. Halere, erdiko atsedenean inork ez dio Patri gaizkirik esan.

Buruzagiak, bai, bereak eta bost esan-eta, biraoka erantzuten dio. Patrik badaki zer duen egitekoa beste ekipoan golak sartzen dituen mutila zaindu. Jadanik, lehen zatian zigor tiroa eman zioten takle gogor batengatik. Oraingoan, lasterka katalan jokalaria go-

lera doala takle gogor batez zangoko hezurra, tibiari haustekotan kaska haundia ematen dio. Jokalaria lurrean dago, arnasa galdurik. Jendeak txistuz, baina Patri kanpora doa, harro-harro ez baitira beste katalanak gol sartzeko aski gai izanen. Egun hartan euskaldunek txapelketa irabazi dute.

Arratsean, kapitainak deitu dio, esanaz futbol federazioko epaitegitik igaro beharko dela. Bost axola, dio Patrik. Epaitegia ez da bakarrik Espainiakoa izan: zoritxarrez, nazioarteko ligak debekatu dio futbolari talde batean izatea, betirako.

Maiatz egun hartan, loreek usaintzen ari eta ahateak iparralderantz lerroan joaten, gure gizontxo gogoeta goibeletan dago. Ez du gehiago, ez adiskiderik, ez lagunik ikusten. Bera miresten zuten ezezagun batzuk deitu diote, beren *hincha* taldean sartzeko. Bi koloretako kamiseta eta bandera eskaini diozkate.

Oraintxe, berriki, partida guztietan dabilela, oihuka, irainka, besteen berotzen eta partidatik landa beste ekipoaren zaleak, beste *suporterrak* jipoitzen. Lagunei irakatsi die ingeles *huliganen* teknikak, ekipo etsaiari izua sartzeko, garagardo latak eta botilatxoak, beterik, katapultatzen. Horrelako batean, polizia bat zauritu du eta *hincha* taldeak kanporatu.

Kanporatzeak harrotasunean min egin badio, poltsikoan on, ezen herriko partida haundi guztietan ikusiko duzue, lehenko kamioneta zaharra utzirik bi kamioneta dendekin futbol zelaien hurbilean coca-cola eta garagardo lata eta botilak nasaiki saltzen.

Ondotik, gazteak aski mozkortu ondoan, ontzi hutsak eta beteak botagailutzat harturik partidara doaz. Noiz arte? Sarreran hintxak ikertuko omen dituzte. Egun batez, beste lanbide bat aurkitu behar luke, futbol denda bat, eta izena emango lioke “Hartzarena.”

## GUZURTEGI ARGITALETXEA

Langileak bildu dituk eta esan diet: Adiskideok gure argitaletxearen behin behineko balantzea egitera nator. Azken liburu azoka horretan ez dugu nahiko liburu saldu, milatik gora doi doia igaro gara. Ez gara hemen filantropoak, elkarrekin lokartzeko, ez hizkuntza zaleak, ez literaturzaleak, errentagarritasuna, sosa behar dugu, ezen geu geroago eta aberatsago baldin bagara, zuon, langileon onurarako izanen da. Horregatik, baldin galdetzen badizue Bernard de Laroche zenbat ale saldu dugun, nik irratian esan bezala 5.000 esan, honela erosi ez dutenek, agortuko dela beldurrez erosiko dute, beste batzuk besteen gisa egiteko eta erosi dutela erakusteko hemendik aurrera besteak salduko ditugu. Ongi entzun duzue:

—Nagusia zuretzat telefono deia

—Bai. Zein da?

—Zure inprimategia

—Eta?

—Ordaintzeko ordua da.

—Itxaro egin beharko duzue

—Azken aldian bezala lau hilabete, eta zuek gure bizkar diru hori epean uzten?

—Nola zuzentzen zara guri, herriko argitaletxe haundiena, ia monopolio garenari. Arbuioz?

—Guk ere, langileak ditugu ordaintzeko; sindikatuak eta gremioak erraz mugitzen dira

—Laster ordaindu egingo dizuegu

—Zer da laster?

—Azokaren emaitza ikusi behar da.

—Ez al duzu esan argitaletxeak eleberri bat 5000 aletan saldu duela?

—Eta?

—Eta gezurra da bi mila baizik ez genituen irarri eta prentsak jakin baleza?

—Ez, zuek ere, sinetsi behar duzue, beste hiru milen inprimatzea eduki nahi baduzue. Itxoin!

—Beste hiru milak ez ditugu egingo beste bi milak ordaindu arte; eta oraingoan erdia aurretik emanaz.

—Geuk bigarren argitalpena kentzen badizuegu?

—Herrian bada beste argitaletxerik.

Lagunok, ikusten duzue gure argitaletxea haize txar batek inarosten duela baina bihurtuko gara. Inprimategi horrek garesti ordainduko du bere ezezkoa, ezen gure *L'Etoile* inprimategian eginen ditugulako beste hiru milak. Bestalde, herriko lehen alderdi denari eskatuko diogu irarkola horri boikot egin diezaion eta itoko ditugu.

—Bai esan (telefono aspergarria).

—Zure adiskide ona naiz (Honela hasten dira zuri kalte edo xantaia egin nahi dutenak).

—Nor zara?

—Matematikaria eta estatistika azterlaria.

—Eta?

—Irratian zenion bost mila eleberri saldu zenuela, gezurra da.

—Nola gezurra?

—Ezen epe horretan eta zenezkan langileekin, zenezkan mahaiekin... ezina zen.

Orduan, hasten zaik gizona esaten. Egunero han zegoela, kalkulatu zuela makina bezala ibiliz, saltzai-leak bezero bakoitzarekin, gutxienik, hiru minutu hartu behar zituela: liburua hartu, paper poltsan eman, dirua hartu, xehea itzuli. Erran nahi baita, orduan, ordu batean hogei liburu sal zezakeela.

(Jarraitzen du deabru horrek bere zenbakiekin izorratzen nau). Beraz azoka ordu zuzenean irekiz eta azken orduraino han egonaz, 48 ordu irauten du, 48 x 20: 960 liburu egiten du.

Hark, telefonoan, gure *vedettearen* liburua saltzen langile bat baizik ez zuela ikusi, bestiak, beste argitalpenen saltzen zeudelako, beraz bostmilitarik, gehienik miletara jaitsi behar genukeela eta ez banuen nahi hark prentsan sala zezan gure gezurra aitortu behar genuela. Ez ote genekien komertzio gezurraren ondotik dabilzala kontsumitzailearen aldeko elkarteak eta editore elkarteak? Kontuz!

—Baina ez al zara zu, *La Famille* argitaletxekoa eta nolaz esan dezakezu, Joe Great Bushen 10.000 ale saldu dituzuela?

—Ez jauna, ez naiz *La Famille* etxekoa, kanporatu duzun norbait naiz. Eta norbait asko gara.

Azkenean, moztu diok zer gehiago ihardukitzen jakin gabe. Burua izerditan duk. Hemendik aurrera,

isilik egon beharko huke eta horretarako langileei esaten diek nola nahi 5000 kontua dela-eta ahal bezain mutu egotea eta hurrengo egitasmoak aipatzea eta azpimarratzea, monopolioa garela, gobernuaren adiskide haundiak garela (zorionez ez baitu luzaro aldatzeko astirik izanen):

—Egun on.

—Bai zuri ere. Zein zara?

—Langileen batzorde askeko burua.

—Zer nahi du zure sindikatuak. Ba al da argitaletxeetan gurean bezain ongi ordainduak?

—Bai, gizona baina diru hori hilabeteko lan sarietik kanpo emana da eta pentsiotarako ez du balio. Zaharrak zure enpresatik jubilatzen direnean, besteei baino askoz gutxiago kobratzen dute.

—Zer nahi duzu?

—Zure esanari erantzun diot. Baina, ez da hori zuregana ekartzen nauena, ezen gobernuaren subentzioa gure herrian inprimatzeko baldintzan hartzen duzu eta erdiak kanpoan, merkeenean eragiten, horrek hemengo langileei lana kentzen diete.

—Eta zer nahi duzu egin dezadan. Liburua hain gaizki saltzen delarik, argitaletxea itxi?

—Liburua gaizki saltzen dela, baina irratian esan duzuna alderantziz zen, gizona. Nolanahi zuzenbidearen errespetu ezarengatik auzitegira deituko zaitugu, zure jokaerak aldatzen ez badituzu, salatuko.

—Zer nahi duzu Herritik joan nadin eta kanpoan liburuak egin?

—Kanpoan ere jarraituko zaitugu.



Hau azkena izanen da araez. Aspertzen naute. Nekez hartu genuen bi familiek argitaletxe honen kontrola eta orain bekaitzez dabilta denak. Aski.

—Jean Solidaire jauna?

—Bai ni naiz.

—Hiriko polizia etxea?

—Eta?

—Zure lantegian dabiltzan, bi langile harrapatu ditugu.

—Zer egin dute?

—Zure etxean lan.

—Hori ez da lege haustea.

—Bai jauna, lege haustea, biak paperik gabeko kanpotarrak direlako Eta lan egiten zuten, nonbait. Zure etxean lan.

—Hala diote. Lekukoak aurkituko ditugu eta frogatuko.

Eta oso gaizki ordainduz, gizarte aseguru gabe edukitzen dituzulako.

—Baina beren herrian ez lituzkete hemengo diruak irabaziko?

—Legeak badaude Frantzia honetan eta atxilotu ditugun biak kanporatuko ditugu, baita denbora beren zure argitaletxe miresgarriaren itxura zikindua dukezu eta zu kondenatua.

Bai, laster Herria utzi beharko duk eta Suitzara hire altxorra dagoen lekura ihesi egin beharko. Deabruak eraman dezala argitaletxe madarikatu hau!

(2003. ko, abenduaren 15.ean)

## PRZSEWALSKI, FRANTSES IDAZLE BERRIA

Ez, ez, ez da erraza izan Gallimatiard paristar argi-taldariaren ikustea. Nagusi haren idazkarisa, ez du aspaldi, ohe-lagun bezala hartu dudala. Izena baliatu zait, bai nire deitura berdingabea jende horien kilikagarría da-eta. Izendatu gabean inork ez dit kasurik egiten, baina, Igor Przsewalski jauna aurkezten nautenean, lekuko airea, frantses zozoek diotenez, nire “charme slave” delakoaz, betetzen omen dut.

Hitzordu hartan ekarri nion lana, esku idazkia, hots nire lehenbiziko eleberria. Gallimatiardi utzi nion. Gallirionen idazkari neskak nire eleberriaren “irakurtzailea” zein izan den jakinarazi zidan: diplomaz eta kulturaz jositako luma gizon isil eta ezezaguna; hala ere, nire xedeentzat indar haundia eduki zezakeena. Nolabait ere, ikusi behar nuen. Gaur, haren ikustera noa... Haren etxera. Ez naiz jaun-haundiki jantzi...horrelako jendea ez baita ofizioan aberasten, haren heinetik hurbildu behar dut. Ez zikinegi ez zarpailegi idazle serio baten itxura eman behar diot.

Bonaparte karrikako laugarren bizitza batean atea jotzen dut. Atea irekitzean ez dut itxaroten nuena

ikusi, ez gela ketsua, ez zikinkeria, ez liburu meta baina, andrerik eduki gabe, ederki apain zezakeen gizon baten habia dotorea. Gizona gaztea da. Ederki jantzia. Lepo inguruan zetazko zapi mehea, ile kizkur koloregabetua, bekainak belztuak. Hitz egitean andre goxo baten doinuarekin ari da. Mutilzalea noski.

Harekin, ordubeteko hizketa. Gaia, liburua Pariseko argitaletxe haundienean argitaratzeko nondik igaro eta sartu behar dudan, atzeko atetik erakutsi dit: arratsean “la Pérouse” enean afaldu dugu, gauean elkarrekin atzeko atetik ohean jostatu. Ez nuen inoiz horrelako harremanen aldeko joerarik, ez eta gogorik eduki, baina besterik ezean ate txikitik sartu behar

Geroago, uste nuen “irakurtzailea” aski sotila izanen zela gauzen laster errazteko. Halarik ere, bi hilabete harreman alde horietan denbora joan zaizkit. Liburuari buruz ez dut ezer erdietsi, bai hotsez, beste irakurlariek ere irakurri behar dutela, gero, alegia Gallirion buruzagia bere onean denez ikusi behar. Behin, ordea, goiz batez, sekulako gozamina eman nion irakurtzaileari. Arratsean, nagusiaren bulegoan jarririk kontratua izenpetu genuen.

Gaur, Gallimatiarden ikustera noa, probak irakurtzera. Argitaletxeak propaganda eginen dit, baina bizpahiru kritika-gizon eta kritika-andre haundiei kartak idatzi behar dizkiet. Hor dago iltzea. Beharrez, Jean Martin nire lagun zaharrak gutunak egiten lagunduko nau. Eginen dizkit. Egia da larruak erosten eta saltzen, bizitzan, diru ederrik bildu dudala, zoritxarrez literaturaren gauza sotil horietan ikasteko astirik gabez, ez dut trebetasunik. Bidean, nire lekuan

idazten duen, nire “idazle beltzaren“ behar horrek kezkatzen nau. Jean deituko dut.

Etxera sartzen naizelarik, andreak mutur eta muzin egiten dit. Beltzuri egite horrekin ez al du Gallimatiardeneko idazkari neska zer zaidan deskubritu? Eta beste irakurtzailegaz gertatuak ote dakizki? Ez da haserre, ordea. Azken poz hondarra itzali zait.

—Zer dun beltzuri horren egiteko?

—Ez diat hiri muzin egiten.

—Zer?

—Berri txarra eman behar diat.

—Eta?

—Jean Martin hil zaigu.

—Ez genian horren beharrik. Gallirionen kontratu horrekin Goncourt saria jasotzeko zoria baninan.

Biak isildu gara. Bai, hemendik aurrera gaizki ibiliko gara, gaizki ibiliko naiz. Beste Jean Martin “beltz” bat aurkitu beharko zait, gutunak baita eleberria ere hark idatzi baitzituen eta besterik idatzi behar zidan. Berak, Martin izen horrekin nekez saldu zezakeen. Ez dakit zergatik ez duen luma izen bat hartu idazteko. Berak zion ez zuela bere buruarengan sinesten. Zer eginen dut nik, zer bilakatuko naiz ni, nire “beltza“ gabe.

(1979. 12.8.)

## TXANG BIDEO

Betidanik edo aspaldidanik Asiako gizonek erakarri naute. Txang ezagutu nuenean txinarrez daukagun irudia zeukan: lasaia, ez gehiegi alaia, baina neu horrelako baten beharrez aski zaintsu eta urduriegi nintzelarik aukeratu nuen. Oporretan geunden eta bainu jantzian nire larru zuri, ile hori gorputz gaztea gustatu zitzaion.

Noizean behin, apur bat kezkatu zegoen eta azkenean aitortu zidan, Londresen utzi zuela bere ordenagailua. Nik ez nion esan, ez galdetu zergatik mikroordenagailu baten ez egoteak urduri jar lezakeen norbait, baina oporrak amaitzera zoazenean ez zen hain artea agertu.

Gertatu zen mutil hori nire auzoan aurretik ikusia nuela. Nire lanetik hurbil zeukan bere egoitza, edo hobeki erran aita aberatsak ordaindu solairu osoa. Horrek eta beste pentsaera askok bizitza hobe baten eramateko nire auzo zikineko gela txikia gogo onez uztea bultzatu ninduen. Haren etxeko laguna izango nintzen. Mutila pozik zegoen.

Haren egoitzan sartu ginen lehen gauean, ordea, afaltzera nekez bildu nuen, hain zen bere pantailari lotua. Laster afaldu ondoren, berdin, bere tramankuluarekin. Normaltzat jo nuen jokaera hori, orduan, ezen bi astez ez zuen bere ordenagailua piztu eta bazi-tuzkeen mezuak irakurtzeko, erantzuteko, idazteko. Bakean utzi nuen. Gau hartan, gauerditan ohean sartu nintzenean ez zen nireganatu.

Biharamunean, ni etxeko andre eta hura berehalaxe gosaldurik, egun osoan pantailari so. Nik ere begiratu nuen zelango jarduera zuen, eta konturatu nintzen bideo-jokoak zituela goiz eta arrats begiz jaten eta tekleatzen, nire bularra ikusi eta ukitu gabe. Hain umea zenik ez nuen goizago hauteman.

Gero, ni lanera itzuli nintzen eta bera nonbait aitaren diruetarik bizi, etxean egon, jokoan. Asko gogoko zituen mutil lasai hark estrategia jokoak eta irabazten zuenean lurra orpoaz jotzen bazuen, galtzen zuenean sekulako ostikoa beheri ematen zion. Haatik, azpian baziren bizizaleak, lo egileak, eta Txangek protesten artean, zarataz, noiznahi, gauaz esnatzen zituen.

Bestalde, jakin nuen honela auzitan zegoela auzoekin. Asteak eta asteak igarotzen ziren eta ni ohean bakarrik etzaten eta lokartzen. Ohe laguna galdua nuen. Jokoeekin larrua jotzen ote zuen? Itxuraz gizon ematen zuen mutil horrek bere hogeita hamar urterekin haur baten joko zaletasuna gorde zuen; ez bakarrik gorde garatu. Nik ez neukan haren munduan lekurik eta han sartzeko gogorik. Txangen benetako lagunak bideo jokoetan zeuden.

Ateri aldia izan nuen. Behin presaka dutxa baten hartzen ari zelarik pantailara itzultzeko, bainu labai-  
nean zirristatu zen, erori ; eskuineko ukaraia hautsi  
zuen eta ezkerrekoa ubelez bete. Astebetez ordena-  
gailua piztu gabe egon zen, baina ni bakarrik ohean,  
nahiz oraingoan ez nintzen zain egoten ea lo egitera  
etorriko zen.

Etxera itzuli eta bere lasaitasun osoa galdua zuen  
katu amorratu batekin bizitu nintzen. Ezin zuen,  
asteetan, bere sagua erabili eta bideo jokorik egin.  
Niri eskatu zidan, otoi, haren lekuan joko-ontzi hori  
pitz nezan, eta hark agindu-eta jokoak egin nitzan. Ez  
nintzen haren jokoan sartu nahi izan

Bi eskuak gaizki ohean ez zuen ezertarako balio,  
zurrunga egiteko baizik. Halatan ere, orduak erama-  
ten zituen pantaila piztuaren aurrean, katu urdinez  
apaindu irudi berdinari begira. Azkenean, han lokar-  
tzen zen edota haserre gorritan ohean sartzen, gaizta-  
keriaz iratzartzen ninduelarik.

Noski, maite ninduela zion, baina ez nuen lortu  
egun bat bakarrik eman zezan bere ordenagailua piztu  
gabe. Gainera, bitartean ahalegindu bainintzen aste-  
buru guztiak etxetik kanpo igarotzen, ordenagailu  
eramangarria berehala erosi zuen. Itsas ederrari edo  
mendi miresgarriei, nire begitarteari ez zien begirik  
luzatzen, pantaila zen maite zuen aurpegia, ez nirea.

Orain, azkenean, nire Londresko gela txikian nago  
eta ez du Txang txinarrak ezer egin ni gordetzeko.  
Uste dut, beharbada, bere garbaia izan dela etxeko  
lanak egiten nizkiolako nire galera. Informatika ikasi

dut eta laster bere ordenagailua suntsituko duen birusa bidaliko diot; honela apika etxetik irtengo da ziber-kafe batera bideo joko egitera.



## MUSIKA BARROKOA

Amak, gaztetik, musika barrokoa entzunarazi zidan. Larru zurientzat, ez omen zen gure kulturakoa, ez omen zen gure arrazakoa. Ba al da arraza bat musika bati lotua. Ez nuen uste baina kontserbatorioko klaseetan ni larru iluneko bakarra nintzen eta gurasoekin entzuten genituen kontzertuetan ez zegoen ez beltzik, ez gutaz kanpo mulatorik. Amak zion nik, haren alabak, erakutsi behar nuela, horretarako ere, gai ginela. Nire burua zurien aldetik ikusten nuen eta hasieran ez nion larru koloreari kasurik egin.

Biolin jotzen oso trebea nintzen. Urteak joan eta azken ikastaldian kontserbatorioko lehen saria izan nuen. Musika Baionan ikasten nuen, ezen Pauen ez zegoen horretarako egitura osorik. Astero klaseak banituen pribatuan Pauen eta bi bider asteazken eta larunbatean Baionara nindoan.

Honelako bidaiara batean, beltzengandik neukan urruntasuna agertu zitzaidan. Bai, gogoz txuria nintzen. Trenez nindoan kontserbatoriora. Beltz bat sartu zitzaidan konpartimendura. Hizketan hasi eta zion arraza berdinekoak ginela, elkartasuna elkarri

erakutsi behar geniola. Ez nuen ulertu zertara zoen hitzaldi hori. Gero, eskatu zidan biolina erakutsi niezaion. Zorrotik atera eta eman nion. Hark orduan poltsikotik labana hartuz erran zidan:

—Ez badidan hire dirua ematen hire tresnaren hariak moztuko dizkinat. Eta amore ematen ez badun labanarekin larruan markak egingo.

Neukan diru guztia eman nion. Handik berehala atera zen eta laster hurrengo geltokian jaitsi.

Geroago, ez dakit mulatoa naizelako, ala, bost lagunek bost beltzek unibertsitateko kanpusean eraso eta lapurtu ninduten. Beltzenganako urruntasuna leize bilakatu zitzaidan.

Nire helburu ederrena zen solista ibiltaria eta eza-guna izatea; horretarako, lehenik orkestra batean lan egin behar nuen. Sartu nintzen eta hamar urtez, hobeki ikasteko, hiru orkestratan egon, baina ez nuen inondik ikusten bertan solista izateko irtenbiderik; banekien nazioarteko lehiaketa batean sari baten irabazteak horretan asko laguntzen zuela, baina inork ez ninduen aurkeztu nahi eta nire buruaren aurkezteko mahuka eta ausartzia behar nukeen eduki. Niretzat larregi!

Frantses lagun bati aholkuz galdetu nion, nola handik irten behar nuen. Hark erantzun, lau bide zeudela, judua, asiaticoa, pederasta edo entxufe batekin ezkondua izatea. Ni, omen, haientzat jatorriz Antilletako nintzen: doi doia *reggae* eta *beguine* jotzeko?!

Bai, juduek, batik bat, biolin munduan elkartasun ederra erakusten zuten, trebetasun berdinean

besteei irabazten, jarraian pianista edo zuzendari bezala japoniar, korear edo txinar izateak laguntzen zuen. Pederastia gure tresna musika joleen artean batzuetan lagungarri zen, baina batik bat kantari izateko. Neska eta lotsor izanik ez nuen hortik sartzerik. Jakina, neska batzuk oheko bidetik solista izaten saiatu ziren, baina hau ez zen bide emankorrena.

Halatan ere, beste baldintzak eduki gabe, operan gure jatorrizko afrikar ahots indartsuengatik, beltz bat edo beste azaldu zen, edo frantses arrunta Pariseko operan sartu kontserbatorioko buruzagiaren alabarekin ezkonduz.

Nolanahi, kasu guztietan orkestra zuzendariak baino indar gehiago zuen taldearen kudeatzaileak.

Musika barrokoaren sua ez zitzaidan itzali, nahiz erromantikoen jotzera behartzen gintuzten. Etxera sartzen nintzenean hiriko kamara talde txikia antolatu baikenuen, horretan barrokoa bakarrik jotzen genuen, eta barroko zaharrenak. Guretzat hartzen genuen atsegina eta hiritik kanpo ez genuen astirik kontzertu askoren emateko.

Gure arrazaren ohorea nahi nuen eraiki. Denborarekin, mendebaldetarren kultura harrotasunak mindu ninduen. Nire biziko pozik haundiena, Le Chevalier de Saint-Georges, Saint-Georges zaldunak eman zidan. Musikari barroko on hori, Antilletan jaio mulatoa zen.

Ama esklabo eta aita noblea izan zuen. Aitak ezagutu eta izen hori, kalitate hori ipini zizkion, sortzez Joseph Boulogne, zenari. Zoritxarrez edo zorionez

“ezkerreko haurra” zelako ez zen beste aitonen semeen gisa ez Armadan, ez Elizan sartu ahal izan.

Aberatsek zeuzkaten morroin ugarien artean pixka bat maila goragoan zegoen, orduan, musikariak eta biolin jole egin zen; ez bakarrik jole haundia... Orkestra zuzendari izan zen eta frantses iraultza garaian Gossecen opera eskola burua. Musika idazle ere izan zen: zernahi kontzerto, sonata eta beste bazuen eginik. Haren hamasei bat obra eta obratxo ikasi, eta kaseta egin genuen.

Orain, zaldun mulato musikaria modan dago. Goi mailara igotzen trabatu nauten horiek ere jotzen dute, baina gure orkestratxoa ez da, horregatik, ezagunagoa, ez gaudelako fama egileen zerrendetan. Bi mendeku izan ditut, oster, mulato musika egilea ezagutua delako eta bestalde gure kamara taldetxoak ez duelako besterik jotzen.

## ZIZELKARI OSPETSUA

Arte Eskola amaitu nuenean, zuzendariaren ikus-ten ibili nintzen. Banekien nire emaitzak ertainak izan zirela. Gogorrakoak entzun nituen

—Zu ez zara, inoiz, zizelkaria izanen ez eta benetakoa artista.

Maltzurki galdetu nion:

—Irakasle txarrak eduki ditudalako?

—Ez. Zure errua da, zure ezintasuna.

—Eta zer egingo dut? Irakasle?

—Ez eta ere. Noizbait aldizkari batean karikatura egile.

—Hori, etorkizuna al da?

—Beste ikasketarik egin behar zenuen. Nik ederki ikus zintzaket galeria batean arte eder saltzaile.

Joan nintzen. Ez nintzen aski aberats galeria baten irekitzeko. Nire ezintasunaren gezurtarazteko, zuzendariaren aholkua jarraitu nuen: komertzio ikasketak egin nituen eta denbora berean Arte Azoketan ibili. Hasieran, zaindaria nintzen, gero antolatzaileen lagun. Egonaldia hori oso jakingarria izan zitzaidan,

neukan beste asmo baten garatzeko. Banekien, orain, nola artistak, besteek, *inpresario* delakoek, *agentek* egiten dituzten, kudeatzen, aholkatzen eta saltzen. Vedette-ak, egia esan laster sortzen eta batzuetan lasterrago itzaltzen ziren izarrak ziren, baina, bide horretarik zerbait egin zitekeen...

Enplegatzen ninduen Szilversbaum jaunari nire karikatura batzuk erakutsi nizkion. Gustatu zitzaizkion baina ez zuen horrelakorik saltzen; bigarren mailako aldizkari batean astero bat ematen nuen. Beste behin, nagusiari nire zizel lan bat ekarri nion. Harriduraz egon zen

—Hau al da zure eskultura tankera?

—Bai jauna, talentu apur bat daukat.

—Hau salduko dizut ziuurrik eta ekar itzazu beste horrenbeste. Bizpahiru saldu ondoren, ikusiko dugu kontratua, eta niretzat bakarrik egingo duzun ala ez?

Benetan bitxia, arraroa zen nire eskultura: gizonaren jatorria zeukan izena, harrizko gizona zen baina larrua arrain ezkatat estalirik eta suge baten aurpegi okaztagarria zuen. Honelako andrea egin behar nion. Lan horretarako jadanik lekua banuen: hiriko arrabal behartsu, itsusi batean harakin aberats bati erosi nion (ba al dago aberats ez den harakinik?) Nolanahi ez zuen, miserian hil aititaren estudioa, aitonaren taile-rra, batere gogoko. Saldu zidan.

Han nituen nire eskulturak egiten. Aski laster, egiten nituen. Estudioan berrogeita hamar bat eskultura zahar banituen. Eskultura akademikoak ziren. Nire lana zulakaitz batekin ezpalka ezkata edo beste

itsuskeria zer bait larruan grabatzea zen. Buruak kari-katura bilakatzen nituen eta honela nire zizel tankera izan nuen. Hilero eskultura bat egitea eskatzen zidan galeriak eta egundainoko arrakasta zeukaten eta neukan. Honela, lasai ibili nintzen eta aurretik egin irudiak ere apurka-apurka saltzen nituen.

Kazetariak nire lantokia ikusi nahi zuten. Lanean ikusi nahi ninduten. Nik beti ezezkoa ematen. Horrek urduri jarri ninduen, arrangura gaiztoa buruan sartu: ez ote ziren nire txokora etorriko eta egia jakingo? Ez zen susmoa, jeloskeria hutsa izan, Parisen nengoen batean, norbaitzuk nire estudioan sartu ziren. Ez lapurtu, ez. Agian, argazkiak egin.

Ezin zezaketen, ordea, frogatu abantzuan nituen ukitu gabeko estatuak ez zirenik, nik eginak. Hargatik, ni baino begiluze eta belarriluzeagoak baziren. Behin estudiora kazetaria agertu zitzaidan:

—Zu zara Boronski eskultorea?

—Bai.

—Zuk, duela urtebete, harakin bati hemengo estudioa erosi zenion ez?

—Baietz, bai.

—Eta hortxe ikusten ditudan estatuak ere erosi zenizkion. Ez al da hala?

—Eta zer? Zer dakizu?

—Familiar bazekiten bazirela eta baten batek zerrenda egina zuen.

—Familiak zer du ikusteko?

—Harakinak haien aholkurik eta abisurik gabe, saldu baitzituen.

—Eta gero?

—Zuk ez dakizu estatua egiten. Hori Arte Ederretako irakasle bati aitorrarazi diogu.

—Barkatu saltzen ditudanak nireak dira.

—Ez. Argazkiak egin nituen eta aldizkari baterako erreportaia prestik dut. Xehetasun gehiago nahi nuen.

—Zenbat nahi duzu?

—Ez naiz xantaia egilea, kazetari begiluzea baizik.

—Berdin du, eta nik poliziari konta baniezaio nire atea bortxatu duzula?

—Kontzientzia garbi bazenu aspaldian eginen zenuen ez?

—Norentzat ari zara?

—Kazetariak dituzte galderak egiten. Nolanahi, ez naiz gehiegi kezkatzen: ikusten dut bi estatua baizik ez zaizkizula geratzen, eta zure zizel lana horietan bukatuko da. Orduan, egia jakingo da.

Joan zen. Arrazoi zuen, laster bukatuko da nire sorkuntza, ez naizelako abstraktuan gai eta figurati-boan ez dakidalako ez esku baten, ez oin baten edo beso baten egiten.

Zizelkari ospetsua nintzen. Galeriara ez nintzen gai izan eskultura gehiagoren ekartzeko eta ez zegoen, inon, nik hobetzeko zizel lan akademikorik salgai, edo niretzat garestiegi. Galeriak ez ninduen gehiago ezagutu, eta aldizkari batean nire istorioa agertu zenean, kostatu zitzaion berriz modan jartzea. Faltsu-keriarentzat kalte dirua eskatu zidaten, eta nik saldu nituen azken hoge eskulturen dirua bahiturik utzi.



Orain, eskultura saltzaile edo artean aditu egingo naiz, baina horretarako herritik joan behar dut, nire diplomekin beste nonbait kokatzeko, eta beharbada egun batez, horrela, aurretik egin zizel lan akademikoak idoroko ditut.

## MONSIEUR LE MINISTRE

Jauzi arin batean CX 2000. tik jaitsi natzaizue. Bizitza, orain arte, lorez betetako zelaia izan zait. Ministeriotik lana utzi-eta pozik etxera sartzen natzaizue.

Emaztearengana banoazue. Denak alde daukatzat: gorputzeko atseginak etxean, ohore guztiak kanpoan. Dirua. Gaur, ordea, etxeratzean andrea aurpegi goibel aurkitu dut.

—Zer duzu Chantal? Gaizki al zaude?

—Ez, osasunez, ez.

—Zer, bada. Norbaitek gaizkiren bat egin dizu?

—Gaizkiren bat airean dago. Michel, azkenean gure bake ederra oroitzapen txar batek, hautsiko du.

—Zer esan gura duzu? Argi hitz egin, otoi?

—Zera, aspaldiko hura...badakizu... gogoratzen zara ezkonberritan, abokatu zinenean gertatu zure lege eta ezlege jokutruaz... bai timoaz, oroitzen zara?

—Bai, bai! Zoritzarrezko lege hauste hura egin nuen. Hura ezin ahaztu, alabaina gure artekoa da, ez? Gutaz kanpo inork ez daki haren berri... eta orduan, gaizki ibili nintzela ez daukazu zertan arranguratu. Inork ez daki

—Honek, behintzat, bai.

Andreak gutun itxurako paper txuria luzatzen dit. Idazkinaz egina, eta izenpetu gabeko gutuna. Hona zer dion:

“Duela hamar urte, egin duzun gaiztakeriaz argazki frogak eta benetakoak baditut. Zure kargua, desohorean galdu nahi ez baduzu, diruz lagundu behar nauzu. Telefonoz deituko zaitut “sosa” non ezarri behar duzun jakinarazteko”.

—Ez genuen beste beharrik... Entzun luke zer bait, eta hori ez da froga, gainera, agian, ez du argazkirik... Chantal zer diozu? Ezetz.

—Zeuk zergatik ez dituzu probak erre?

—Nola behar nituen maitea, gogo onez, Burtsako obligazioak sura jaurti?

—Eta zergatik ez? Gaur bakea genuke. Horiez kanpo, aski diru daukagu eta orain aski ote xantaia horri ihardukitzeko, izengabeko horren asetzeko?

Geroago, telefono deia eduki dudala emazteari esan dioanean ez da batere larritu.

—Banekien bai, honela gertatuko zela eta zelan ordainduko duzu, ba?

—Hilero, hilabete guztiz, seinalatu gutun kaxa aldakor batera hilabete saria, billete zaharretan ordaindu beharko diot.

—Zorionez, xantaia egileak ez badizu, geroago eta gehiago eskatzen? Noiz arte honela biziko gara? Politika madarikatu hori utzi beharko duzu eta, orduan, xantaia beharbada, geldi liteke.

—Ez dut uste gehiago eskatuko duenik. Aski argi bada ez du iturria agortu nahi izanen.

(Zer ziurtasunez ari haizen, kasu!)

—Ez zaitzela sineskorregia izan...Zenbat nahi diru eskainirik ere, ez zaitu betirako bakean utziko... nekez.

—Ez naiz, behin betirako, ordaintzen ibiliko. Probak berreskuratu behar ditut.

—Eta beste kopiarik baldin badu?

—Eta esan baniezaio gezurra diola?

—Gizona gaizki zabiltza. Gure bikotea, gure etxea, dena desegin dezake diru errazaren gose horrek. Eta ez dut uste haren bihozberatasunari dei egin behar zaionik.

Andrea, apur bat etsitua, jadanik, kezkaz beterikako bizi berri horretara prest dagoela dirudi.

—Ez huen beste beharrik, ministro sartu berri eta dagoeneko, eskandaluaren itzalak hire botere eguzkiaren estaltzeko heltzen zaizkik.

—Nork arraio? Nork deabru idazten dit. Eta txantxetan balitz?

—Ez dut uste, ez Michel. Jadanik nik ere telefono deia eduki dut eta beste batek baieztatuko digu, zorigaitzez. Ahots estaliz, esan dit dokumentu batzuen fotokopiak bidaliko dizkigula.

—Nor daiteke Chantal?

—Zuk baino lehen, gutun hau irakurririk, go-goeta batzuk eginik nago.

—Ja, erran!

—Arrazoi duzu, azken hamar urteetan gure etxetik hainbeste enplegatu igaro da-eta.

—Bai, gelaren trukean neskatilak, baita neska-meak, garbitzaileak, auto-gidariak eduki ditugu. Nor ote? Ziurrago gizonezkoren bat?

—Lauzpazortzi jende horien artean ez da erraza izango asmatzea zein, Michel.

—Maitea, aspaldiko norbait izatekotan..

—Michel, hirizainak ez dituzu abisatuko?

—Ez aipa ere. Horiek beren sudurluzeak horretan sartzen badituzte, usain tokiraino joango zaizkigu. Harrapatuko gaituzte.

—Beraz, ordainduko duzu?

—Eta besterik zer egin? Txuri eta garbi banintz? Baina nola demontre aurkitu dituzte paperak?

—Ez dakit, bada... bakarrik uste eta norbait entzuteko neurrian egon zaigu. Noizbait hitz egin dugulako. Eta handik landa, norbait horrek frogen bila bazterrak ongi arakatu dituelako.

Gaur, ohiko moduan, “hara” hoa. Diru emaitza hori ohitura bat egin zaik. Bihotza bero, gogoia alai bahoia. Erraz izan duk: dirua ohiko ate misterioetsuan dagoen gutun kaxara botako duk.

Oinez sartuko haiz...Atx! kontuz! auzoko karrikan hire automobila espaloi ertzean aparkatua dakusak. Atari baten gerizpean ezkututzen haiz eta hortik Rue de Richelieu kaleko hire diru atea zelatatzen. Bai, hortxe zegok hire anderea zain.

Orain, ez duk etxerako presarik. Telefono batera hoa, handik Patricia hire maite isilari dei egiteko.

—Ez zaitzela gutun ontzitik igaro. Emaztea hor dago zain. Gutun ontziz aldatu beharko gara, lasterren edota gauaz diruaren biltzera etorri behar duzu.

Orain, telefono adarra utzi-eta... bultzako bat, beirazko ateari eta etxeari: hi haizelako heure buruari xantai egilea...izengabeko gutunen idazlea. Honela ezkutuko ohaide iaioaren gorputz saria ordaintzen duk. Bai, beti hire andreak kontuak hurbilegitik aztertzen dizkik. Bakoitzak bere sekretuak osoki eduki ditzake... kutunak ere ez daki asmatu xantaiaren berririk. Benetako sekretua batek baizik ez daki.

(1979.12.12)

## *ELEBERRIA*

### BILDUMA

1. Ur Apalategi: *Gure gauzak S.A.*
2. Monique Laxalt: *Oroitzapen urdin iluna*
3. Fito Rodriguez: *Faustoren itzala*
4. Ibai Iztueta: *Oro bare*
5. Txomin Peillen: *Jende ederrak lanean*